
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. FORU PLANA GIPIZKOAN

2020-2023

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA.....	4
2. III. FORU PLANAREN ESKU HARTZEA BIDERATZEN DUTEN ELEMENTUAK	9
2.1. ERREFERENTZIAZKO ARAUDIAREKIN LERROKATUTA	9
2.2. GFAREN IBILBIDEA ETA ESPERIENTZIA BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN.....	11
2.3. III. FORU PLANAREN HELBURUA, PRINTZIPIOAK ETA BERMEAK	12
3. III. FORU PLANA LANTZEKO PROZESUA	16
4. ESKU HARTZEKO ESTRATEGIA ABIARAZTEA	19
4.1. GOBERNU ONA	22
4.2. EMAKUMEAK AHALDUNTZEA	35
4.3. EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO	42
4.4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	53
5. KUDEAKETA SISTEMA	64
5.1. III. FORU PLANA KUDEATZEKO BARNE EGITURAK	64
5.2. KUDEAKETA SISTEMAREN FUNTSEZKO ELEMENTUAK	66
5.3. AURREKONTUA.....	68
ERANSKINA: III. FORU PLANAREN GAUZATZEAREN ADIERAZLEAK	70

1. AURKEZPENA



1. AURKEZPENA

"EUROPAN DESBERDINTASUN MAILA TXIKIENA DUTEN PERTSONEN KOMUNITATEA IZAN NAHI DU GIPUZKOAK"

Gipuzkoako Foru Aldundia etorkizuneko ikuspegi horrekin ari da lanean legegintzaldi honetan, eragile eraldatzaile den aldetik berdintasunean oinarrituagoa den gizarte eraikitze eta, ondorioz jendarte oparagoa eta kohesionatuagoa lortzeko. Etorkizunaren, lehiakortasunaren, berdintasunaren eta lankidetzaren balioetan oinarritutako ikuspegia du.

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eragingarriaren lorpena inolako zalantzarik gabe da aipatutako planteamendua erdiesteko funtsezko faktore bat, premisa saihetsezin bat. Hain zuzen ere bizitzaren esparru guztietan oraindik ere emakumeen mendekotasuna eta diskriminazioa bultzatzen duten jokabideak direlako, emakumeen eta gizonen egiturazko desberdintasuna azaltzen duten faktore garrantzitsuenetakoak direlako.

Genero Berdintasunaren Indizeak, 2020an lehen aldiz argitaratu baita Gipuzkoari begira egindako neurketekin –2017ko urteari dagozkiolarik– 72,5 puntutan kokatzen du Gipuzkoa, eta 100 da erabateko berdintasunari dagokion balioa. Zifra horrek Europako batez bestekotik gora jartzen du geure lurraldea. Hala eta guztiz ere, behar-beharrezkoa da berdintasunean aurreratuenak diren herrialdeen maila –Finlandia, 73,4; Frantzia, 74,6; Danimarka, 77,5; eta Suedia, 83,5– lortzeko helburuak jartzea.

Euskal Herri osoa bezala, berdintasunerako politikak sustatzeko lurralde aitzindaria izan da Gipuzkoa. Betiere gobernuen bultzada etengabeari eta handiari esker eta gipuzkoar herritarren konpromiso sozial gero eta handiagoari esker. *Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Foru Planak* beste bultzada bat eman nahi dio konpromiso horri, beste urrats bat egin nahi du egiazko berdintasuna lortzeko bidean.

Hauexek dira finkatzen ditugun helburu eta konpromiso nagusiak, datozen hiru urteotan egikaritzen ahaleginduko garenak: Diputazioaren baitan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko duten egiturak, mekanismoak eta praktikak indartzea ahalbidetuko duen gobernantza eredua –gobernu ona– bultzatzea; Gipuzkoan emakumeen ahalduntze pertsonala, kolektiboa eta soziopolitikoa bultzatzea; ekonomia eta gizarte antolakuntza berdintasunaren alde eraldatzea; eta gurea indarkeria matxistarik gabeko lurraldea izatea lortzea.

Ustekabeen harrapatu gaituen COVID-19aren pandemiak azkartu baizik ez ditu egin itxura batean munduan gertatzen ari ziren gizarte, ekoizpen eta ekonomia eraldaketa handiak. Azaleratu diren erronka handiek gure arreta erakarri dute, alegia, behar-beharrezkoa dela egoera honek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ez handitzea, eta ohartarazten dute guztiz egokia dela gure komunitatean gizarte eta ekonomia arrakalak handitzea eragotziko duten politika eta ekimen publikoak abiaraztea.



Legegintzaldi honetan zehar Gipuzkoako emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru politika bideratzeko oinarriak finkatzen ditu plan honek. Era berean, lan, helburu eta ekintza ildoak jasotzen ditu Aldundiak bere barne antolamenduan eta eginkizunean aurrera egin dezan baita berdintasunaren alorrean ere. Inolako zalantzarik gabe, aurre egin behar zaie erronka horiei lurraldeko, EAEko eta Euskal Herri osoko gainerako erakundeekin elkarlanean, dagozkien eragileekin eta entitateekin, eta Gipuzkoak feminismoaren eta emakumeen eskubideen defentsaren esparruan duen gizarte eta elkarte sare garrantzitsuarekin.

Markel Olano Arrese
Ahaldun Nagusia



“IRISMEN LUZEKO ERRONKA”

Azken urteotan aurrerapauso handiak egin ditu Gipuzkoak genero berdintasunaren gaian. Gipuzkoako gizarte osoarena da emaitza hori: lorpen kolektiboa da, herritarrena, aktiboa eta konpromisoz betea; elkarte sarearena, arduratsua eta propositiboa; sistema sozioekonomikoarena, erantzunetan lerrokatuta; eta, azkenik, erakunde publikoena, politika publiko anbiziotsuak sustatzen eta koordinatzen baitituzte.

Irismen luzeko erronka da berdintasuna, halako perspektibarekin aztertu behar dugu eta anbizioz heldu behar diogu gaiari. Asko aurreratu dugu, baina oraindik urrun gaude, maila guztietan, egiazko eta benetako berdintasunaren ostertzetik. Burugogorra da errealitatea, eta egunero erakusten dizkigu emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen iraunkortasun frogak:

- D Beharbada indarkeria matxista da erakusgarri gordinena, maila jasanezinetan jarraitzen baitu bere burua pertsonen komunitate gisa errespetatzen duen gizarte batentzat. Indarkeria mota hori gero eta ageriagoa den arren eta gizarte gisa erantzuteko agian inoiz ez bezalako indarra dugun arren, ez gara desagerrarazteko gauza izan.
- D Ixten ari gara genero arrakala hezkuntzan, baina joera sexistek eutsi egiten diote, eta indartu egiten dituzte oinarriko desberdintasunak.
- D Enpresetan aurrerapausoak egin ditugu kontziliazio erantzukideen neurrietan eta berdintasunaren aldeko konpromisoan, baina desberdintasunak sorrarazten dituzten egiturazko ereduetan oinarritzen jarraitzen du lan merkatuak.

Gipuzkoako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Foru Planarekin aldi estrategiko berri bat zabaldu dugu zalantzaz beteriko sasoi honetan. COVID-19ak eta aurre egin behar dugun gizarte, osasun eta ekonomia krisialdiak agerian utzi dute garapen iraunkorra bideratzeko agenda bat edukitzeko eta berdintasunaren alorrean politika publikoak indartzeko garrantzia. Orain da garrantzitsua, eta gainera premiazkoa: oso handia da aipatu ditugun aurreramenduen inboluzio arriskua, eta erne jarraitu behar dugu genero ikuspegia aintzat hartzeko epe laburrean, ertainean eta luzean.

Horrenbestez, krisialdi honen ondorioak aztertu behar dira inoiz ez bezalako indarrarekin azaleratu diren oinarriko desberdintasunak kontuan harturik: emakumeok eta gizonok zaintza emateko garaian daukagun erlazio desberdina, gure bizikidetzaren ereduaren benetako erakusgarria delarik; lan merkatuko desberdintasunak, arrakalak irekitzen jarraitzen baitute eta ezinezko egiten baitituzte bizitza proiektu duinak; eta gizarte baldintzatzaileak, emakume asko eta asko gizarte gisa ezin onartu dezakegun txirotasunaren mugara eramaten ari baitira.


2020-2023 legegintzaldirako bide orri bat eskaintzen du III. Foru Plan honek, aukera emango digu geure balia bideak indartzeko eta lerrokatzeko eta berdintasunerantz azkar hurbiltzeko. Lorpenak kolektiboak baldin badira, konpromisoak ere bai. Helburu horrek zuzenean interpelatzen gaitu, Gipuzkoako Foru Aldundia erakunde publikoa baita. Ahaldun Nagusiaren Kabinetearen zuzendaritzapeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak bere egin du konpromiso hori, eta berdin egin dute Foru Aldundiko beste departamentuek ere. Eta interpelatzen ditu esparru guztietako –gizartea, ekonomia, politika, kultura eta hezkuntza– eragile publikoak, pribatuak eta sozialak eta Gipuzkoako herritarrak, izan ere, gizarte zibil konprometitua eta bizia da berdintasunean aurrera egiteko eta politika publikoen iraunkortasuna bermatzeko oinarria. Gizarte zibilarri zor diogu plan bideragarria, praktikoa, ulergarria eta irisgarria, behar besteko bermekin, Lurraldean emakumeen eta gizonen berdintasunaren bidean aurrera egiten jarraitzeko.

Aldaketa iraunkorrak sortzeak elkarlanean jardutea eta gobernantza ereduak finkatzea eta soluzioak elkarrekin aurkitzea dakartza berekin batean, ezinbestekoa da guztion esku hartzea. Toki erakundeena, elkarte sarearena, mugimendu feministarena, azken horren bultzada

ezinbesteko balio propositibotzat baitugu. Gobernantza kolaboratiboaren bidez baizik ez dugu komunitate gisa lortuko emakumeen ahalduntzea, horien agerikotasuna eta esparru guztietan parte hartzea. Laburbilduta, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerantz egin behar dugu desberdintasunen aurreko konpromiso kolektiboa bere egingo duen gizarte kohesionatuan.

Miren Elgarresta Larrabide
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zuzendari Nagusia

2. III. FORU PLANAREN ESKU HARTZEA BIDERATZEN DUTEN ELEMENTUAK



2. III. FORU PLANAREN ESKU HARTZEA BIDERATZEN DUTEN ELEMENTUAK

Gipuzkoako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Foru Planak, aurrerantzean III. Foru Planak, 2020-2023 epealdirako Gipuzkoako Foru Aldundian berdintasunerako politika antolatzen eta bideratzen duen tresnatzat harturik, elkarren artean erlazionatzen diren elementuak hartzen ditu abiapuntutzat plana lantzeko. Laburbilduta azalduko ditugu elementu horiek atal honetan. Elementu horiek, jarraian deskribatzen den estrategia osoa zeharkatzen dutenek, ezinbesteko baldintza multzoa osatzen dute III. Foru Plana beste politikekin koherentea izan dadin, bideragarria izan dadin eta emaitzak lortzeko ez ezik aldaketak sustatzeko gauza ere izan dadin, betiere iritsi nahi den ekonomia, gizarte eta ingurumen eredia iraunkorra eta berdintasunean oinarritua izateko xedearekin. **Hiru kategoriatan egituratzen dira elementu** horiek:

1. **Erreferentziakoa araudia:** tresna juridikoak eta programatikoak, III. Foru Planaren ardatz izan beharrekoak.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren, aurrerantzean GFA, **ibilbidea eta esperientzia** berdintasunerako politika publikoen esparruan.
3. **Plangintzaren muga:** bere **Helburua, Printzipioak eta Bermeak** abian jartzeko.

2.1. ERREFERENTZIAZKO ARAUDIAREKIN LERROKATUTA

Erreferentziakoa duen hainbat esparrutako (nazioartekoa, estatukoa, erkidegokoa eta aldundikoa) araudiarekin ez ezik, bi tresna juridikorekin eta bi programatikorekin ere lerrokatu nahi du III. Foru Planak, tresna horiek inflexio puntua markatzen baitute erakundeen inplikazioan emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez nola Gipuzkoan hala EAE osoan:

TRESNA JURIDIKOAK

- **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2005 Foru Araua, martxoaren 9koa.** Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko GFAREN jardura bideratu behar duten printzipioak eta helburuak finkatzen ditu arau horrek, berdintasuna lortzeko esku hartzeko ildoak zehazten ditu, eta gauzatu ahal izateko barne antolakuntza baldintzak sortzen ditu. Gainera, berdintasunerako foru planak onartuko direla jasotzen du gai horretan politika publikoak garatzeko esparru estrategikoa ezartzen denetan (20. artikulua).
- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako Indarkeria Matxista Deuseztatzeko Lege** proiektua. Lege proiektu honek, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen aldaketa dakarrenak, Autonomia Erkidegoko Administrazioa, foru eta toki Administrazioak, horien erakunde autonomoak eta haien mendeko edo haiei lotutako entitate publikoak ditu aplikazio esparru. Arau hori indarrean jartzean emendatu egingo dira aipatutako administrazioen eginkizunak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean, eta modu integralean ekingo zaio emakumeen aurkako indarkeria matxistari.

TRESNA PROGRAMATIKOAK

- **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoa 2020-2023.** Gipuzkoan azaleratzen ari diren erronka eta beharrian berriei erantzuteko agenda publiko instituzionala finkatzen du. Plan horrek GFAn jarduerak lehenesteko tresna izan nahi du eta barne jardunbideari laguntza emateko tresna. Planaren erronka espezifikotako bat da emakumeen eta gizonen erabateko berdintasuna lortzea (enplegua, ekonomia, zaintzak, kultura, parte hartzea gizartean, etab.) eta indarkeria matxistarik gabeko lurralde baterantz egitea. Zehazki, 2020-2023 epealdirako strategiaren **5. Helburu Estrategikoak**, izenburutzat Genero Berdintasuna duenak, “foru politikak hobe lerrokatzea” du xede “berdintasuna sustatzeko, nola GFAn bertan hala udaletan gobernantza kolektiboa indartuz eta Gipuzkoan berdintasunaren alde ari diren emakume taldeekin eta talde feministekin elkar hartuta jardunez”.
- **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.** Plan horretako jarraibideak eta esku hartzeko ildoak izango dira euskal botere publiko guztien jardueraren ardatz emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan. Ildo horretatik, VII. Planaren edukien egiturari jarraiki diseinatu da III. Foru Plana, betiere helburuekin bat datorren esku hartzeko estrategia itxuraturik.

Euskal Autonomia Erkidegoarentzat eta Gipuzkoarentzat erreferentziazkoak diren tresna programatiko espezifiko horiez gain, bada esparru orokorrago bat hartzen duen **beste araudi bat**. Eta garrantzitsua izaki, aintzat hartu beharra dago GFaren 2020-2023 epealdirako emakumeen eta gizonen berdintasunerako esku hartzeko estrategian.

→ Nazioarteko esparrua:

- ▶ **Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda, Nazio Batuena** (Garapen Jasangarrirako Helburuak) (2015). Pertsonen, planetaren, aurrerabidearen eta bake unibertsalaren aldeko nazioarteko ekintza plana. Agenda horretan jasotako 17 helburutatik bat da “genero berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea” (5. helburua). Gainera, emakumeen eta gizonen berdintasuna gainerako helburuetan ere zeharka landu eta garatu behar dela finkatzen du.
- ▶ **Pekinen egindako Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzia** (1995) eta bost urtean behin ospatzen den Adierazpenaren eta Ekintza Plataformaren jarraipena. 2020an konferentziaren 25. urteurrenaren ospakizunaren emaitzek balio handiagoa ematen diete emakumeen eskubideen aldeko aktibismoaren balioari, elkartasun feministari, belaunaldien arteko trukeari eta gazteen lidergoari aldaketa eraldatzailea lortzeko.

→ Europa mailan:

- ▶ **Europar Batasunaren Genero Berdintasunerako estrategia 2020-2025 aldirako.** Europar Batasuna osatzen duten eskualdeetan berdintasuna lortzeko konpromisoa ardatz hartuta, honako helburu hauek finkatzen dira: genero indarkeria desagerraraztea, genero estereotipoei aurre egitea, lan merkatuan genero arrakalak ixtea, emakumeen eta gizonen berdintasunezko parte hartzea lortzea ekonomia sektore guztietan, soldata arrakalak eta genero pentsioak aztertzea, zaintza esparruan genero arrakala ixtea eta erabakiak hartzeko guneetan eta politikan genero oreka lortzea. Arloetako politika guztietan genero ikuspegiaren zeharkakotasuna eta berdintasunaren aldeko ekintza espezifikoak biltzen dituen fokatze dualean oinarritzen da Estrategia. Azkenik, interseksionalitatea planteatzen du estrategia txertatzeko printzipio horizontal gisa.
- ▶ Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzkoa (**Istanbuleko Hitzarmena, 2011**). Hitzarmen hori aurreneko tresna loteslea da Europako esparruan emakumeen

aurkako indarkeria matxistaren arloan, nazioarte mailan irismen handiena duen hitzarmena da emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko, giza eskubideen urraketa larritzat baitu indarkeria mota hori.

→ **Estatu mailan:**

- ▶ **Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoa, Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa eta Martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko presazko neurriei buruzkoa.** Gainera, esparru honetan bertan, kontuan hartu behar dira, Foru eta Toki Administrazioei dagokienez, **Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren Neurriak** (2017).

2.2. GFAREN IBILBIDEA ETA ESPERIENTZIA BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN

Plangintza dokumentu honek jaso egiten ditu eta balioa ematen die GFak emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko egindako ibilbideari eta horretan bildutako esperientziari. Iragan legegintzaldian, helburu eta eduki desberdineko hiru tresnaren bidez bideratu zen lan hori: Berdintasunerako II. Foru Plana, Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Plana eta Gipuzkoako Kontziliazio Erantzukiderako I. Plana. Gainera, erreferentziatzen ditu EAEko esparru guztietan emakumeen eta gizonen egoerari buruz egindako diagnostikoak, zehazki, Emakundek landutako “Zifrak 2018. Emakumeak eta gizonak Euskadin” eta Gipuzkoako Genero Berdintasunaren Indizea, Eustatek landua eta Gipuzkoako datuei dagokienez lehen aldiz 2020an argitaratua. Informazio horrek erakundearen baitan sorrarazi duen ezagutzak azaltzen du III. Foru Plana honako premisa hauen arabera diseinatu izana:

A) GFAREN ERREALITATEARI EGOKITZEA

Plangintza antolatua bilatu da, departamentuek eta foru zuzendaritzek egiten dutenari lotua, zintzoa eta errealista (egingarria, lau urtetan gauzatu daitezkeen konpromisoekin), irisgarria, interes talde desberdinei komunikatzeko modukoa, haien beharrezan araberak, emaitzak lortzeko bideratua eta erraz asko identifikatzen diren helburuekin.

Gainera, prozesu gisa diseinatutako ekintzak hartu dira gogoan, beste plangintza aldi batzuetan abiarazitakoak hobetzeko eta finkatzeko, edo berdintasunerako eraldaketa prozesu berriak abiarazi ahal izateko. Alde batetik, emakumeen eta gizonen arloan plangintza estrategikoko dokumentu bakarra osatu nahi da, eta bestetik amaitu egin nahi da berdintasun arloan planifikatutako ekintza kopurua plangintzaren kalitatearekin lotzeko joerarekin, berdintasun arloko plangintzen egungo erronketako bat baita azken hori.

B) GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARENTZAKO PLANA

GFako zuzendaritza eta departamentu guztiek plangintza tresna hau barneratu eta bere egin dezaten, tresnak erakunde osoaren “egitekoan” eragitea bilatu da. Horretarako, emendatu egin da zuzendaritza eta departamentu guztien konpromisoa generoko mainstreaming-aren estrategiaren aurrean. Gainera, departamentu bakoitzak dauzkan rolak eta ardurak zehaztu dira III. Foru Planean eta plangintza honek hartzen dituen lan prozesuetan, desmuntatu egin da emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko eduki guztiak Berdintasunerako Organoaren ardurapean uzteko joera, organo horren eginkizuna eta eskumena III. Foru Plana sustatzea, koordinatzea eta jarraipen eta ebaluazio lanak egitea baita.

C) ALIANTZEI BALIOA EMATEA ETA ALIANTZAK OPTIMIZATZEA

Plan hau diseinatzeko orduan, ahaleginak egin dira antolakuntza kulturalen aldaketa bat sustatzeko baldintza egokienak dituzten departamentuekin eta zuzendaritzekin (aipamen bat egin dutelako berdintasunerako plan estrategikoan, berdintasunerako unitate administratiboak dauzkatelako,...) aliantzak modu eraginkorrean kudeatzeko. Hauexek dira, besteak beste, foru departamentu eta/edo zuzendaritza horiek: Ogasuna eta Finantzak eta Gizarte Politikak departamentuak eta Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa, Estrategia, Sustapen Ekonomikoa, Gazteria, Kirola eta Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak zuzendaritzak. Aliantza horien xedea da, aipatutako departamentuetan edo zuzendaritzetan genero ikuspegia jasoko duten arloetako politika berriak abiaraztea baino, dagoeneko genero ikuspegia txertatzen ari diren politiketan jasotzea (gogoetak eraginez eta jarduera ildoak eraldatuz), haien bidez emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko.

D) GOBERNANTZA KOLABORATIBOA III. FORU PLANAREN "BIHOTZEAN"

2020-2023 Plan Estrategikoaren lehentasunen artean dago gobernantza kolaboratiboa sustatzeko eta/edo finkatzeko gobernagarritasun eredu bat sendotzea. Horrek eskatzen du inplikazio eraginkorra izan behar dutela berdintasunaren aldeko politika publikoen diseinuan, zabalkundeetan eta ebaluazioan GFAko zuzendaritza politikoak eta teknikariek, gainerako euskal administrazio publikoek, udalak eta mankomunitateak barne hartuta, gizarte antolatuak, bereziki mugimendu feministak eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteek, eta oro har herritarrek. Inplikazio horrek, politika publikoa egiteko beste modu bat eta demokrazian sakontzeko beste urrats bat dakartzanak, ezinbestean ekarri du III. Foru Planak kontuan hartzea lankidetzeta dinamikak, elkarrekin sortzeko dinamikak, entzute aktiboa bultzatzeko eta gizartera hurbiltzeko dinamikak finkatzea ahalbidetuko duten prozesuak, egiturak eta tresnak diseinatzeko edo indartzeko premia. Eta horretarako, funtsezkoa da III. Foru Plana herritarrei helarazteko komunikazioa hobetzea.

E) COVID-19ak ERAGINDAKO EGOERA

Covid-19ak eragindako osasun, ekonomia eta gizarte krisialdiak sorrarazitako egoerari egokitu behar izan zaio III. Foru Plana nola berau lantzeko jarraitu den metodologiari hala helburuei, ekintzei, iraupenari eta aurrekontu plangintzari dagokienez.

III. Foru Plana bezalako plangintza tresnak ahalbidetzen eta indartzen du egungoa bezalako krisialdiaren testuinguruan emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromisoari eusteko bidea, egoera hau emakumeen eta gizonen berdintasunaren lorpena une egokiago batera edo erakundearentzat horren garrantzitsua ez den unera atzeratzeko aprobetxatu dadin ekidinez. Gainera, foru politikek, bereziki sustapen ekonomikoarekin eta gizarte arretarekin zerikusia dutenek, Covid-19ari eman beharreko erantzunean genero ikuspegia aintzat hartzea ezinbestekoa da foru politikek agerian utz dezaten eta gainditu dezaten generoko diskriminazio desberdintasunak indartzen dituen errealitate hori.

2.3. III. FORU PLANAREN HELBURUA, PRINTZIPIOAK ETA BERMEAK

Arestian deskribatutako funtsezko elementu horietatik abiatuz, atal honetan aurkezten dira, taula batean, III. Foru Planaren Helburua, proposatutako esku hartzeak bideratzeko Printzipioak eta inplementazio egokiak bermatuko dituen alderdiak (bermeak). Plangintza bera mugatzen

laguntzen duen informazio hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 epealdirako Plan Estrategikoarekin eta EAEko emakumeen eta gizonen Berdintasunerako VII. Planarekin lerrotatuta dago.

HELBURUA	<p>GFaren jardueraren bidez bultzatzea berdintasunak, eskubidetzat harturik, balioa izan dezan eta maila guztietan instalatu eta barneratu dadin. Bi bideren bitartez lagundu nahi da balio aldaketa hau gauzatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➔ GFaren jarduera bideratuz, emakumeen mendekotasuna eta diskriminazioa bizitzaren arlo guztietan justifikatzen duten balioak desagerrarazteko. ➔ Foru politikak emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburuarekin hobe lerrotatuz, berdintasuna ezinbesteko balioa izan dadin lurraldeko garapen iraunkorarentzat. 	
ESKU HARTZEAK BIDERATZEKO PRINTZIBIOAK	PARADIGMA FEMINISTA	Paradigma feminista pentsamendu eredutzat harturik, mugimendu soziopolitikotzat eta ekintza indibidual eta kolektibotzat ulerturik, gizarte antolamendu patriarkala zalantzan jartzea, desmuntatzea eta eraldatzea, Gipuzkoako emakumeen eta gizonen herritar eskubideak erabilgarriak izatea eta gizateria dibertsagoaren eta demokratikoagoaren eraikuntza bermatzea ahalbidetuko duelarik.
	EMAKUMEAK AHALDUNTZEA	Ahalduntzea, emakumei autonomiaz eta askatasunez bizitzea ahalbidetzen dien prozesutzat ulerturik, banaka, taldeka, gizartean eta politikan aurre egin beharreko genero desberdintasunak desagerrarazirik. Berdintasuna lortzeko, ezinbesteko baldintza da emakumeak ahalduntzea. Foru politika guztiek sustatu behar dute, euren baliabideen eta ekintza zehatzen bidez, emakumeak ahalduntzea.
	GENERO IKUSPEGIA	Genero ikuspegia, mendekotasun patriarkaleko harremanetan oinarritutako genero desberdintasunak ageriko egiteko tresna metodologikotzat harturik, harreman mota horiek testuinguruan kokatzeko eta GFaren politika publikoetatik heltzeko.
	INTERSEKZIONALITATEA	Intersekzionalitatea, desberdintasunei heltzeko ikuspegi eta tresnatzat hartua, kontuan izanik generoak beste diskriminazio faktoreekin –arrazo, desgaitasuna, adina, orientazio sexuala, identitate sexuala, familiaren osuera, hizkuntza, prekarietatea enpleguan eta beste inguruabar pertsonalak eta sozialak– duen aldi bereko erlazioa. Intersekzionalitatearen ikuspegiak aukera ematen du emakumeak soilik generoak bereizitako subjektuak direlako ustea gainditzeko, eta ageriko egiten ditu emakumeek edo emakume taldeek nozitu ditzaketan askotariko diskriminazioak. III. Foru Planean jasotzen diren ekintza guztiek aintzat hartzen dute

		beren garapenean interseksionalitatearen ikuspegia.
	GIZA GARAPEN IRAUNKORRA	Giza garapena bere gizarte, ekonomia eta ingurumen dimentsioetan iraunkorra izango bada, emakumeen eta gizonen ongizatea eta beren beharizanen eta interesen betetzea izan behar du lehentasun. Gipuzkoan egiturazko aldaketa hori egingarria izateko, III. Foru Planean jasotako esku hartzeak bat etorriko dira Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan finkatutakoarekin, bereziki 5. Helburuarekin: “Generoen artean Berdintasuna lortzea eta emakumeak eta neskak ahalduntzea”.
BERMEAK	Benetako konpromiso politikoa emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko.	
	III. Foru Planean finkatutako esku hartzeko estrategia bideratzeko beharrezkoak diren baliabideak jarriko dira (aurrekontu baliabideak, baliabide teknikoak, aldi baterakoak, antolakuntza eta giza baliabideak).	
	Berdintasunak Gipuzkoako giza garapen iraunkorrean duen eragina herritarrei jakinarazteko politika gardenak egitea eta kontuak ematea .	
	Gobernantza kolaboratiboa berdintasunerako.	
	GFAren erantzukizuna III. Foru Planaren inplementazio eraginkorraren aurrean, langile guztiak pixkanaka berdintasun alorrean prestaturik .	

3. III. FORU PLANA LANTZEKO PROZESUA



3. III. FORU PLANA LANTZEKO PROZESUA

Gobernantza kolaboratiboa sustatzeko xedearekin, gogoeta eta azterketa prozesu bat eginda landu da emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Foru Plana, prozesu horretan zuzenean esku hartu dute Gipuzkoako erakundeetako eragileek eta gizarte eragileek. Zehazki, emakumeen eta gizonen berdintasunerako Organoaren ekarpenez gain, organo hori izan baita III. Foru Plana lantzeko prozesuan aitzindari, hainbat fasetan jaso dira foru zuzendaritza guztien eta udal eta mankomunitateen ekarpenak berdintasun teknikarien bitartez, baita mugimendu feministaren eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarten bidez ere. Mugimendu feministaren eta emakumeen elkarten parte hartzea GUNEAREN bidez bideratu da, gune hori baita Gipuzkoako Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan duen parte hartzeko eta solastatzeko espazioa.

III. Foru Plana lantzeko prozesuak bat egin du Covid-19ak sorrarazitako egoerarekin, eta ondorioz, III. Foru Plana eragileekin aztertzeke lan metodologia behin eta berriz egokitu behar izan zaio errealitate horri, batez ere itxialdian eta deseskalatze fasean (online bidezko lan saioak, euskarriak doitu behar izatea parte hartu ahal izateko eta epeak betetzeko). Jarraian deskribatzen da burura eramandako lan prozesua. Prozesu horrek 2019. urtean landutako oinarrizko dokumentuan izan zuen abiapuntua, eta 2020ko martxotik uztailera arte aztertu eta progresiboki hobetu da lanketan parte hartu duten eragileekin. Ondoko koadroak laburbilduta jasotzen ditu III. Foru Plana lantzeko prozesuko mugari nagusiak.

I. FASEA. PROZESUA ABIARAZTEA ETA III. FORU PLANAREN OINARRIZKO DOKUMENTU BAT LANTZEA

III. Foru Plana lantzeko prozesua abiarazten duen fase honen hasieran planaren **oinarrizko dokumentu** bat landu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoak (ezaugarriak, egitura, ildo orokorrak, helburuak eta ekintzen eta egikaritzeaz arduratuko den zuzendaritzaren lehen identifikazioa). GFAko Berdintasunerako Organoa osatzen duten langileekin egindako gogoeta estrategiko eta teknikoko saioetan bildutako emaitza da oinarrizko dokumentu hau. Eta funtsezko fasea dela esan behar dugu, aukera ematen baitu zer plangintza estrategia mota eraiki nahi den marrazteko eta helburu desberdinei begira ekintzak proposatzeko, betiere ondorengo hausnarketa ahalbidetzeko.

Behin oinarrizko dokumentua landu ondoren, azterketa fasera deituko diren eragileak eta espazioak identifikatzen dira, eta ekarpenak jasotzeko tresnak eta bideak diseinatzen dira.



II. FASEA. OINARRIZKO DOKUMENTUA AZTERTZEA ETA III. FORU PLANAREN ZIRRIBORROA LANTZEA

Bi unetan garatzen da fase hau:

Lehenengoa: Intereseko hiru talde motarekin **aztertzen** da III. Foru Planaren oinarrizko dokumentua: **Gipuzkoako Foru Aldundiko Zuzendaritzekin, udaletako eta mankomunitateetako berdintasun teknikariek eta mugimendu feministarekin eta Gipuzkoako berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteekin.** Honako lan sekuentzia hau bideratzen da hiru eragile mota horiek:

- Online bidezko lan saioak proiektua, oinarrizko dokumentua (saio bat intereseko talde bakoitzarekin) eta ekarpenak jasotzeko proposamenak eta tresnak aurkezteko.

- ▶ Oinarrizko dokumentuari ekarpenak egiten dizkieten eragileen igorpen telematikoak. Jasotako ekarpen guztiak, denera 400dik gora, Berdintasunerako organoak aztertzen ditu, eta aztertu eta balioetsi ondoren oinarrizko dokumentuan jasotzen ditu, hala badagokio.
- ▶ Eragileei parte hartzearen emaitzaren sistematizazioa eta itzulpen kuantitatiboa eta kualitatiboa helarazten zaizkie, prozesu honen ondorioz landu den plangintza dokumentuarekin batean.
- ▶ Dinamika orokorra horixe bada ere, mugimendu feministarekin eta Gipuzkoako berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteekin beste berariazko azterketa telematiko bat bideratu da GUNEAREN bidez eta ondoz ondo egindako lau lan saioen bitartez (talde horrekin ez da Gobernu Onaren esku hartzeko ildoak aztertzen, barne izaera handiagoa duelako).

Bigarrena: Aurreko lanetik sortutako dokumentua foru zuzendaritza guztiei helarazten zaie, eta bigarren azterketa egiten dute begiak soilik euren ardurapeko ekintzetan jarriarik. Behin ekintzetan egin beharreko doikuntzak egin ondoren, foru zuzendaritza bakoitzak denboran kokatzen ditu bere eskumenekoak 2020-2023 epealdiko programazioaren barruan.

Fase horren ondorioz lantzen da III. Foru Planaren zirriborroaren dokumentua.



III. FASEA. GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. FORU PLANAREN BEHIN BETIKO DOKUMENTUA LANTZEA ETA ONESTEA

Honako mugarri hauekin osatzen da fase hau:

- ▶ Helburuak eta ekintzak GFAREN plangintza tresnetan jasoko dira 2021eko ekitaldiari begira aurrekontuetan aintzat hartuak izateko.
- ▶ Osatu egingo da emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Foru Planaren dokumentuaren erredakzioa, azpimarra kudeaketa sisteman jarritz.
- ▶ III. Foru Plana Emakunderi bidaliko zaio dagokion txostena idatzi dezan, baita foru zuzendaritza guztiei ere, onespina eman aurreko urrats gisa.
- ▶ Gipuzkoako Foru Aldundiak Gobernu Kontseiluan onartuko du, 2020ko urriaren 6an, emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana.

4. ESKU HARTZEKO ESTRATEGIA ABIARAZTEA



4. ESKU HARTZEKO ESTRATEGIA ABIARAZTEA

Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Foru Planean aurkezten den plangintza estrategia esku hartzeko ildoetan, helburuetan (estrategikoak eta operatiboak) eta, atal honetan zehazten den bezala, ekintzetan oinarritzen da.

ESKU HARTZEKO ILDOAK

III. Foru Planaren plangintza EAeko emakumeen eta gizonen Berdintasunerako VII. Planarekin lerratze aldera, ondoko esku hartzeko lau ildoetatik abiatuak lantzen da plangintza:

<ul style="list-style-type: none"> ▶ Gobernu Ona ▶ Emakumeak ahalduntzea ▶ Ekonomia eta gizarte antolakuntza eraldatzea berdintasuna bermatzeko ▶ Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak
--

Esku hartzeko ildo bakoitzari begira, honako edukien sekuentzia hau garatu da:

- A) Esku hartzeko ildoaren deskribapena eta haren helburuen aurkezpena.
- B) Esku hartzeko ildo bakoitzari begira antolatutako estrategia:
 - ▶ Esku hartzeko ildo bakoitzak helburu Estrategikoak (HE) biltzen ditu, eta Helburu Estrategiko bakoitza hainbat Helburu Operatibotan (HO) zehazten da. Gutxi gorabehera 16 HE-tan eta 44 HO-tan egituratzen da deskribatutako estrategia.
 - ▶ Helburu estrategiko eta operatiboetatik abiatuta, ekintzetan zehazten da plangintza. Guztira 122 ekintzek osatzen dute III. Foru Plana. Ikusienez, gauzatzeko aurreikuspena (denboran kokatzea) egiten du ekintza bakoitzak, eta berau abiarazteko ardura duen foru zuzendaritza finkatzen du. Informazio horrexek ahalbidetuko du ekintza bakoitzaren kuantifikazio ekonomikoa egitea eta EBA (Emaitzei Bideratutako Aurrekontuak) deritzon GFaren aurrekontuak kudeatzeko tresna informatikoan urteko tratamendua ematea.
 - ▶ Kudeaketa sistema azaltzen den atalean deskribatzen badira ere, **Gipuzkoako Genero Berdintasunaren Indizean** jasotakoak hartzen ditu adierazle estrategikotzat III. Foru Planak.
 - ▶ Jarraian grafikoki azaltzen da esku hartzeko ildo bakoitzeko edukien egitura, helburu estrategikoen xehetasunekin batean.

ESKU HARTZEKO ILDOA

16 HELBURU ESTRATEGIKO (HE)

ADIERAZLEAK
GIPUZKOAKO GENERO
BERTINTASUNAREN INDIZEA

44 HELBURU OPERATIBO (HO)

122 EKINTZA

ARDURADUNA

DENBORAN KOKATZEA

GAUZATZEAREN
ADIERAZLEAK

PLANGINTZA ESTRATEGIA: ESKU HARTZEKO ILDOAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK.

GOBERNU ONA

HE. 1. Bertintasun arloan erreferentziatzeko araudiaren garapena sustatzea GFarentzat.

HE. 2. Gipuzkoako emakumeen eta gizonen bertintasunerako politika publikoen plangintza hobetzea.

HE. 3. Gipuzkoako administrazioko bertintasunerako egiturak sortzea eta indartzea.

HE. 4. GFAko langileen eskumen profila emakumeen eta gizonen bertintasun printzipioaren aplikazio praktikoarekin lerrotzea.

HE. 5. GFAko lan prozeduretan genero ikuspegia txertatzeko aurrerapausoak egiten jarraitzea.

HE.6. GFAn eta Gipuzkoako udal, talde feminista eta bertintasunaren aldeko emakumeen elkarteekiko harremanetan gobernantza ireki eta kooperatiboko eredu bat sustatzea.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

HE.7. Emakumeen eta feminismoaren ekarpenak eta jakintzak aitortzea “Gipuzkoa Eredua” garatzeko.

HE.8. Gipuzkoako emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa indartzea.

HE. 9. Gipuzkoako emakumeen ahalduntze soziala eta politikoa indartzea

EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO

HE.10. Berdintasunaren aitortza soziala indartzea giza garapen iraunkorraren zati den aldetik.

HE.11. GFaren eta Gipuzkoako erakunde eta enpresen eraldaketa prozesuetan berdintasunaren txertaketa sustatzea.

HE.12. Gipuzkoako emakumeen autonomia ekonomikoa bultzatzea kalitatezko enplegua sustatuz

HE.13. GFaren konpromisoa emendatzea zaintzen horniduran eta kontziliazio erantzukidean

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

HE.14. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko ikerketa, sentsibilizazio, prebentzio eta formakuntza alorretan aurrera egitea

HE.15. GFaren arreta emateko eredia indarkeria matxistari egokitzea, esparru guztietatik bideratutako esku hartzearen xedea emakumeen eta nesken ahalduntzea izan dadin

HE.16. Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan esku hartzen duten erakundeetan eta beren artean koordinazioa hobetzea.



4.1. GOBERNU ONA



HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA HELBURU OPERATIBOEN LABURPENA

GOBERNU ONA		
HE. 1	BERDINTASUN ARLOAN ERREFERENTZIAZKO ARAUDIAREN GARAPENA SUSTATZEA GFARENTZAT.	
	HO. 1.1.	GFArentzat berdintasun arloan erreferentziazkoa den araudiaren ezarpenaren gaineko jarraipen lana egitea.
	HO. 1.2.	2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.
HE. 2.	GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOEN PLANGINTZA HOBETZEA.	
	HO. 2.1.	Gipuzkoako Foru Aldundiaren berdintasunerako plangintza hobetzen jarraitzea.
	HO. 2.2.	Gipuzkoako udalerrietan eta mankomunitateetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako planaren garapena sustatzea.
HE. 3.	GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOKO BERDINTASUNERAKO EGITURAK SORTZEA ETA INDARTZEA.	
	HO. 3.1.	GFAko emakumeen eta gizonen berdintasuna berdintasun arloko araudia betetzeari eta dagozkien eskumenen garapenari.
	HO. 3.2.	GFAaren genero arkitekturaren garapenean aurrerapausoak egitea Berdintasunerako Organoak sustatutako berdintasun politika.
	HO. 3.3.	HO.3.3. Udalei eta mankomunitateei berdintasunerako organoak edo unitateak sortu eta finkatu ditzaten laguntzeko estrategia garatzea, lurralde oreka sustatuz eta Gipuzkoako udalerrri txikien errealitatea kontuan hartuz.

HE. 4.	GFAKO LANGILEEN ESKUMEN PROFILA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN PRINTZPIOAREN APLIKAZIO PRAKTIKOAREKIN LERROKATZEA.	
	HO. 4.1.	Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei zuzendurik, oinarrizko trebakuntza, espezifikoa eta espezializatua bermatzeko bide bat inplementatzea.
	HO. 4.2.	GFAko berdintasunerako departamentu unitateei GFAko langileei beren arloko jardueran emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren zeharkakotasunean laguntzea eta aholkatzea ahalbidetuko dien eskumenez hornitzea.
HE. 5.	GFAKO LAN PROZEDURETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO AURRERAPAUSSOAK EGITEN JARRAITZEA.	
	HO. 5.1.	Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.
	HO. 5.2.	GFAko departamentuen esperientziatik abiatuta, araudiaren genero inpaktuaren aurretiazko ebaluazio txostenak lantzeko prozedura berraztertzea.
	HO. 5.3.	GFAk zuzenean egiten dituen edo hirugarren pertsonen edo entitateen bidez GFarentzat egiten diren dokumentuetan eta euskarrietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboaren erabileran sakontzen jarraitzea.
	HO. 5.4.	GFaren kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasun klausulak sistematikoki txertatzen jarraitzea eta haien gaineko jarraipena egitea, eraldatzeko duten ahalmena aztertuz (kalitatea eta eragina).
	HO. 5.5.	Lan metodologiaren hobekuntzan aurrera egiten jarraitzea GFaren aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko
HE.6.	GFAN ETA GIPUZKOAKO UDAL, TALDE FEMINISTA ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUMEEN ELKARTEEKIKO HARREMANETAN GOBERNANTZA IREKI ETA KOOPERATIBOKO EREDU BAT SUSTATZEA.	
	HO. 6.1.	Berdintasun arloan barne (departamentu barnekoa eta artekoa) eta kanpo (erakunde artekoa) lankidetzak indartzea.
	HO. 6.2.	GFAn mugimendu feministarekin eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteekin solastatzeko gune egonkorak sortzea eta ikusaraztea.
	HO. 6.3.	Berdintasunerako foru politikaren ardatza gardentasunaren eta kontu emateen printzipioak izatea ahalbidetzea, publizitate aktiboa eta herritarrentzako informazio irisgarria bezalako mekanismoen bidez.

ILDOAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK

Bere jardunbidean emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa aintzat hartzen duen eta zeharkako egiten duen gobernantza sustatzeko premiari erantzutea da esku hartzeko ildo honen xedea.

Esku hartze honek, ez baita puntuala eta berariazko urraskako lan prozesuaren zati baita, GFAREN politika guztiak gauzatzeko erak eta edukiak eraldatzea dakar. Horretarako, langileak progresiboki trebatu behar dira, langileek beharreko gaitasuna izan dezaten eta berdintasuna lortzeko tresna erabilgarri izan ditzaten politiken plangintza, egikaritzea eta ebaluazioa eta prozedura administratiboak.

Ildo honetan, ondorio bikoitza du emakumeen eta gizonen berdintasunari egiten zaion ekarpenak:

- ▶ Zuzeneko ondorioa, langileak berdintasun arloan trebatzea dakarrelako eta berdintasunari buruzko araudia garatzea ahalbidetzen duelako.
- ▶ Zeharkako ondorioa, izan ere, politikek berdintasun printzipioa eta lan egiteko erak zeharkako egiten dituzten heinean, edo laneko barne prozedurak itxura batean neutroak bihurtzen eta emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa sistematikoki txertatzen den heinean, murriztu egingo da haietan izan litekeen inpaktu negatiboen arriskua, eta murriztu egingo dira emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun diskriminatzaileak.

GFAk jada legegintzaldi batzuk daramatza genero ikuspegiaren zeharkakotasunean lan egiten edo generoko mainstreaming estrategia ezartzen, eta horrexegatik hain zuzen ere, alde batetik eskarmentu handia du lan horretan, eta bestetik estrategia horretan aurrerapausoak egiteko baldintzak ahalbidetzen dituen ibilbidea du egina. Baldintza horien artean, aurkezpen honetan balio handiagoa eman nahi zaie honako hauei:

- A) **Egitura** multzo bat dago GFA osoarentzat, egitura horien bidez artikulatzen dira zeharkako politikak (zeharkako politika da berdintasun politika).
- ▶ **Departamentu arteko batzordea** GFAREN 2020-2023 epealdirako Plan Estrategikoaren eta zeharkako politiken (berdintasuna barne hartuta) gaineko jarraipena egiteko.
 - ▶ **Departamentu barruko batzordea:** Departamentu bakoitzean bideratzen da dagozkion zeharkako politiken gaineko jarraipena.
 - ▶ Berdintasunerako **departamentu barruko unitateak** Gobernantza, Ogasuna eta Finantzak eta Gizarte Politikak departamentuetan. Unitate horiek AOT postu bat dute, eta langile horiek lanaldiaren % 50 ematen dute berdintasun printzipioa zeharkako egiten aipatutako departamentu bakoitzean.
 - ▶ **Parte hartzea** beste esparru batzuetako **egituretan:** emakumeen eta gizonen berdintasunerako Emakunderen Erakunde arteko Batzordean, laneko teknikarien Taldeetan, aipatutako Batzordearen esparruan, gazteekin indarkeria matxista prebenitzeko “Beldur Barik” erakunde arteko programaren Talde eragilean, lankidetzak EIGEREkin, parte hartzea GUNEA solastatzeko espazio sozialean, etab.
- B) Egiturak garatzeaz gain, ekintza ugari burutu dira alde batetik generoko mainstreaming estrategia abiarazi ahal izateko eta bestetik horren aurrerabidea bermatzeko nola barne mailan hala lurralde esparruan. Adibidez:
- ▶ Oinarrizko formakuntza eta formakuntza espezializatua langileei zuzendua, urtero egiten diren ikastaroen bidez. 2019. urtean berdintasunean Trebatzeko Plan marko bat landu du GFAk, bertan finkatzen da foru langileak trebatzeko ibilbidea. III. Foru Plan honetan dago jasota ibilbide horren garapena.

- Genero ikuspegia arloetako politiketan txertatzea, 2019-2030 epealdirako Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralean, parte hartzeko prozesuak diseinatzeko eta abiarazteko Gidan eta Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikorako Foru Plan Estrategikoan egiaztatzen denez. III. Foru Plana lantzen ari den unean gauzatzen ari da lan hori.
- Berriazko lan taldeak osatzea, berdintasun arloan eta erakunde osoan eragiten duten GFaren proiektuetan sakontzeko. Horien artean aipatzekoa da generoak araudian duen inpaktuaren aurretiazko ebaluazio txostenak lantzeko prozedura berraztertzeke xedearekin sortutako departamentu arteko taldea.
- Genero inpaktuaren aurretiazko ebaluazio txostenak eta dagozkien egiaztapen txostenak egitea (gutxi gorabehera 20 txosten urtean).
- Berdintasun klausulak aintzat hartzea kontratuetan (217 2019an), dirulaguntzen deialdietan (742 2019an) eta hitzarmenetan (36 2018an).
- Gipuzkoako udalerriei laguntza ematea generoko mainstreaming-aren estrategia erabiltzeko, udaletako eta mankomunitateetako berdintasun teknikariek lan esperientziak diseinatzea eta GFaren eta langile horien artean lan gune bat sortzea toki esparruan genero ikuspegiaren zeharkakotasunean sakondu ahal izateko. Era berean, Berdinbidean programa garatzen du GFak: udalerrri txikietan, berdintasun arlorik ez dutenetan, berdintasun politika abian jartzen laguntzeko eta aholkuak emateko zerbitzua eta lan gunea da.

Testuinguru horretatik abiatuta, emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Foru Planak lagundu egin nahi du berdintasunean positiboki eragingo duen gobernagarritasun eredu bat osatzen **Gobernu ona ildoaren bidez. Ardatz hori 6 helburu estrategikotan eta 17 helburu operatibotan dago antolatuta, eta guztira 41 ekintza biltzen dituzte.**

GOBERNU ONA**GO.HE. 1 BERDINTASUN ARLOAN ERREFERENTZIAZKO ARAUDIAREN GARAPENA SUSTATZEA GFARENTZAT.****Go.HO. 1.1. GFarentzat berdintasun arloan erreferentziazkoa den araudiaren ezarpenaren gaineko jarraipen lana egitea.**

EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Go.1.1.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren ebaluazioa egitea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Go.1.1.2. GFak bideratutako berdintasun politika emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea aldatzeko Legean finkatutakoarekin bat datorren aztertzea, Lege hori indarrean jartzeak erakundeari dakartzkion aldaketak identifikatu ahal izateko.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				

Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.

EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Go1.2.1. Berdintasun arloan erreferentziazko arau esparrua garatzen duten xedapen, jarraibide eta estrategiak onartzea: politiken plangintza, genero inaktuaren aurretiazko ebaluazio prozedura, hurrengo legegintzalditik aurrera kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasun klausulak txertatzeko jarraibideak eta GFako langileak trebatzeko estrategia.	Ahaldun Nagusia				
Go.1.2.2. Mekanismoak egokitzea (izendapenak, lan denborak, etab.) onartutako xedapenak, jarraibideak eta strategiak garatu ahal izateko.	Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza				
Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrita, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFak bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	Zuzendaritza guztiak				

GO.HE. 2. GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOEN PLANGINTZA HOBETZEA.

Go.HO.2.1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren berdintasunerako plangintza hobetzen jarraitzea.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Go.2.1.1. EBA eta Midenet plangintza orokorreko tresnak berdintasunaren arloko foru politika planifikatzeko eta jarraipena egiteko beharrezanetara egokitzea.	Estrategia Zuzendaritza				
Go.2.1.2. Plangintzaren fase guztietan genero ikuspegia txertatzeko irizpideen eta orientabideen ekarpena egitea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Go.HO.2.2. Gipuzkoako udalerrietan eta mankomunitateetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako planaren garapena sustatzea.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Go.2.2.1 Laguntza ematea udalei eta mankomunitateei emakumeen eta gizonen berdintasunerako esparruan bideratu beharreko proiektu estrategikoak planifikatzeko eta garatzeko.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Go.2.2.2. Manomunitateei eta udalei aholkuak ematea euren berdintasunerako berriazko politikak hobetzeko eta arloetako politiketan eta prozedura administratiboetan genero ikuspegia txertatzeko.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Go.2.2.3. Gipuzkoako 10.000 biztanletik beherako udalerrietan, berdintasun arloa ez dutenetan, berdintasunerako politika abian jartzeko laguntza ematea (Berdinbidean).	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				

GO. HE. 3. GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOKO BERDINTASUNERAKO EGITURAK SORTZEA ETA INDARTZEA.						
Go.H0.3.1. GFAko emakumeen eta gizonen berdintasuna berdintasun arloko araudia betetzeari eta dagozkien eskumenen garapenari.						
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023	
Go.3.1.1. Berdintasunerako Organoaren beharriaren azterketa bat egitea egungo arau esparruak esleitzen dizkion eskumenei dagokienez.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa					
Go.3.1.2. Berdintasunerako Organoko langile hornidura identifikatutako beharriantara egokitzea eta finkatzea.	Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza					
Go.H0.3.2. GFAaren genero arkitekturaren garapenean aurrerapausoak egitea Berdintasunerako Organoak sustatutako berdintasun politika.						
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023	
Go.3.2.1. GFAko Departamentuetan jada sortutako berdintasunerako administrazio unitateak finkatzea.	Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza					
Go.3.2.2. Dagoeneko sortuak diren berdintasunerako administrazio unitateen esperientziatik abiatuta, departamentuei beren berdintasun unitateak progresiboki sortzea ahalbidetuko dien estrategia lantzea.	Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza					
Go.H0.3.3. Udalei eta mankomunitateei berdintasunerako organoak edo unitateak sortu eta finkatu ditzaten laguntzeko estrategia garatzea, lurralde oreka sustatuz eta Gipuzkoako udalerririk txikienen errealitatea kontuan hartuz.						
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023	
Go.3.3.1. Udaletan eta mankomunitateetan berdintasunerako egiturak bultzatzea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa					
Go.3.3.2. Gipuzkoako udalerrietako berdintasunerako teknikariek lan egiteko eremu teknikoak finkatzea, esperientziak eta praktika onak batera indartzeko eta transferitzeko, lurralde mailan eta Berdintasunarekin egiten duen lanarekin bat etorriz.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa					
GO HE. 4. GFAKO LANGILEEN ESKUMEN PROFILA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN PRINTZIPIOAREN APLIKAZIO PRAKTIKOAREKIN LERROKATZEA.						

Go.H0.4.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei zuzendurik, oinarrizko trebakuntza, espezifikoa eta espezializatua bermatzeko bide bat inplementatzea.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Go.4.1.1. Legegintzaldiko estrategia diseinatzea berdintasun arloan oinarrizko formakuntza Plana inplementatzeko.	Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza				
Go.4.1.2. Emakumeen eta gizonen berdintasun arloan GFAko langile guztiak trebatzea (oinarrizko formakuntza).	Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza				
Go.4.1.3. GFAko teknikariak trebatzea arloetako politiketan eta administrazio prozedura arruntetan genero ikuspegia progresiboki inplementatu ahal izan dezaten (formakuntza espezifikoa).	Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza				
Go.4.1.4. Trebatzeko bidearen ezarpenaren gaineko ebaluazioa, GFAko langileen trebakuntzan izandako inaktuaren berri izateko.	Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Go.H0.4.2. GFAko berdintasunerako departamentu unitateei GFAko langileei beren arloko jardueran emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren zeharkakotasunean laguntzea eta aholkatzea ahalbidetuko dien eskumenez hornitzea.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Go.4.2.1. Berdintasunerako Organoari eta berdintasunerako departamentu Unitateei zuzendutako formakuntza-ekintza prozesu bat artikulatzea, GFAko langileei aholkuak emateko erreferente espezializatuak izan daitezten.	Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Go.4.2.2. Berdintasun Unitateekin mentorizazio esperientzia bat egitea programa edo departamentu proiektuetan genero ikuspegiaren zeharkakotasuna planifikatzeko eta praktikan jartzeko.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
GO. HE. 5. GFAKO LAN PROZEDURETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO AURRERAPAUOAK EGITEN JARRAITZEA.					

Go.H0.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.						
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023	
Go.5.1.1. Formularioetan, eskaera orrietan, administrazio erregistroetan eta GFako pertsonen zerikusia duten datu baseetan sexu aldagaia aintzat hartzen den ala ez jakiteko diagnostikoa egitea, eta aintzat hartzen ez bada, aipatutako aldagaia aintzat hartzea.	Emakumeen eta gizonen Bertintasunerako Organoa					
Go.5.1.2. Sexuaren arabera bereizitako datuekin egiten den tratamenduaren azterketa egitea, GFarentzako proiektu eta programa estrategikoen diseinuan, aplikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan duen inaktuaren berri izateko.	Emakumeen eta gizonen Bertintasunerako Organoa					
Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.	Zuzendaritza guztiak					
Go.H0.5.2. GFako departamentuen esperientziatik abiatuta, araudiaren genero inaktuaren aurretiazko ebaluazio txostenak lantzeko prozedura berraztertzea.						
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023	
Go.5.2.1. Araudian genero inaktuaren aurretiazko ebaluazio txostenen eta arloetako txostenen lanketan esku hartzen duten departamentuekin hausnarketa-ekintza prozesu bat bideratzea aipatutako txostenak berraztertzeke eta horiei zabalkundea emateko.	Emakumeen eta gizonen Bertintasunerako Organoa					
Go.5.2.2. Ogasun Departamentuarekin berriazko lan gune bat sortzea hobekuntza bideragarriak eta beharizan espezifikoak identifikatzeko genero inaktuaren aurretiazko txostenak eta araudia lantzean.	Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Bertintasunerako Organoa					
Go. H0.5.3. GFak zuzenean egiten dituen edo hirugarren pertsonen edo entitateen bidez GFarentzat egiten diren dokumentuetan eta euskarrietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboaren erabileran sakontzen jarraitzea.						
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023	

Go.5.3.1. Foru Aldundiaren intraneteen gune bat eta adierazle sorta bat sortzea, GFAko langileek dokumentuetan hizkuntza ez sexistaren erabilerari buruz izan ditzaketen zalantzak argitzeko.	Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntza eta Eraldaketako Zuzendaritza				
Go.5.3.2. Hizkuntzaren erabilerari eta Funtzio Publikoak programatutako formakuntza ikastaroetako edukiei eta irudiei buruzko auditoretza lanak egitea berdintasun printzipioa txertatu dezaten eta ez ditzaten genero estereotipoak birsortu.	Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza				
Go.H0.5.4. GFAren kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasun klausulak sistematikoki txertatzen jarraitzea eta haien gaineko jarraipena egitea, eraldatzeko duten ahalmena aztertuz (kalitatea eta eragina).					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Go.5.4.1. Arau esparru berria oinarritzat harturik, kontratuetan, hitzarmenetan eta dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzeko foru jarraibideen azterketa eta eguneraketa egitea.	Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza				
Go.5.4.2. Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan jasotako berdintasun klausulak betetzen diren eta hirugarren entitateek betetzen dituzten jakiteko ebaluazio eta jarraipen lanak egiteko metodologia lantzea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa / Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza				

Go.H0.5.5. Lan metodologiaren hobekuntzan aurrera egiten jarraitzea GFaren aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Go.5.5.1. Foru Aldundiko teknikarien eta genero ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontu gaietan adituak direnen arteko topaketak egitea gaur egun dauden metodologiei buruzko ezagutzak handitzeko.	Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza / Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Go.5.5.2. Genero ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontuak lantzeko metodologia eguneratzea.	Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
GO.HE.6. GFAN ETA GIPUZKOAKO UDAL, TALDE FEMINISTA ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUMEEN ELKARTEEKIKO HARREMANETAN GOBERNANTZA IREKI ETA KOOPERATIBOKO EREDU BAT SUSTATZEA.					
Go.H0.6.1. Berdintasun arloan barne (departamentu barnekoa eta artekoa) eta kanpo (erakunde artekoa) lankidetzat indartzea.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Go.6.6.1. Administrazioaren hiru esparruek (erkidego, foru eta udal mailakoak) parte hartzen duten berdintasunerako erakundeen koordinazio guneetan parte hartze aktiboa izatea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Go.6.1.2. Berdintasun arloan eta Pirinio Atlantikoak Departamenduarekin elkarlanean mugaz gaindiko ekimenak abiaraztea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Go.6.1.3. Esparru guztietan (erkidego, estatu, komunitate eta nazioarte mailan) eta berdintasun arloan burutzen diren ekimenen gaineko jarraipena egitea eta interesgarritzat hartzen diren horietan parte hartzea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				

Go.H0.6.2. GFAn mugimendu feministarekin eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteekin solastatzeko gune egonkorak sortzea eta ikusaraztea.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Go.6.2.1. GUNEA on-line plataforma indartzea, emakumeen eta gizonen berdintasun arloan GFAn parte hartzeko eta solastatzeko gune gisa.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Go.6.2.2. Elkarte feminista eta emakumeen elkarten artean dauden sareak GFAn Berdintasunerako Organorekin solastatzeko guneak sustatzea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Go.6.2.3. Berdintasunerako Organoak sortutako on-line informazioaren irisgarritasuna hobetzea, gardentasuna eta kontu emateak bermatzeko.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa / Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntza eta Eraldaketako Zuzendaritza				
Go.H0.6.3. Berdintasunerako foru politikaren ardatza gardentasunaren eta kontu emateen printzipioak izatea ahalbidetzea, publizitate aktiboa eta herritarrentzako informazio irisgarria bezalako mekanismoen bidez.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Go.6.3.1. Barne eta kanpo komunikazio estrategia bat diseinatzea eta inplementatzea herritarrei berdintasun politikaren xedeei eta emaitzei buruzkoak jakinarazteko.	Komunikazio Zuzendaritza				
Go.6.3.2. Foruaren web orrian, Igualdad-Berdintasuna eremuan, herritarrek Berdintasunerako Organoarekin komunikatzeko atal bat sortzea, herritarrek berdintasun alorreko informazioa eskatu, kexak azaldu eta iradokizunak egin ahal izan ditzaten.	Eraldaketa Digitala Zuzendaritza				



4.2. EMAKUMEAK AHALDUNTZEA



HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA HELBURU OPERATIBOEN LABURPENA

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	
HE.7.	EMAKUMEEN ETA FEMINISMOAREN EKARPENAK ETA JAKINTZAK AITORTZEA “GIPUZKOA EREDUA” GARATZEKO.
HO.7.1.	Aintzat hartzea eta ageriko egitea emakumeen eta feminismoaren ekarpenak berdintasuneranzko gizarte eraldaketan.
HO.7.2.	Gizartea jabearaztea eta sentsibilizatzea emakumeen parte hartzea nagusi den guneen eta lanen ongizate kolektibo eta sozialaren garrantziaz.
OE 8.	GIPUZKOAKO EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA INDARTZEA.
HO.8.1.	Emakumeen elkartean, emakumeen etxean eta ahalduntzeko eskolen lana indartzea, emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa garatzeko tresna gisa.
HO.8.2.	GFAREN genero zeharkakotasunaren strategiaren bidez, emakumeen ahalduntzea sustatzea.
OE 9.	GIPUZKOAKO EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA INDARTZEA
HO.9.1.	Gipuzkoako emakumeen elkartean eta talde feministen eragin sozial eta politiko handiagoa ahalbidetzea.
HO.9.2.	Emakumeen protagonismoa sustatzea kultur ekitaldi eta proposamen guztietan (artistikoak, jai girokoak, oroitzapenezkoak, kirol arlokoak eta euskararen hizkuntza normalizazioaren esparruan egiten direnak).
HO.9.3.	Emakumeen presentzia handitzea gizarte eta politika arloko ordezkaritza eta/edo postu publikoetan.

ILDOAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK

Emakumeen ahalduntzea esku hartzeko funtsezko ildo da plangintza tresna honetan deskribatzen den ekintzarentzat, prozesu horren bidez “besteentzako objektu” izatetik “eurentzako subjektu” bihurtzen baitira emakumeak nola politikaren hala gizatasunaren dimentsioan. Ahalduntzeak ahalbidetzen du emakumeak, patriarkatuan, gutxiagotik, desbalorizaziotik eta mendekotasunetik irtetea, euren autopertzepzioari eta beren buruari dagozkien beste leku batean egokitzeko, benetako berdintasunaren esparruan.

Ahalduntzeak “norberaren buruari baimena ematea”, “gaitzea”, “... egiteko eskubidea izatea”, “...rako legitimatzea”, “berrestea” edo “ahalak ematea” dakartzanez, ikuspegi feministatik emakume bakoitzak bere burua ahalduntzen du, era autonomoan eta indibidualki, inork ez du ahalduntzen. Horrexegatik, ildo honetan jasotzen den esku hartzeak emakumeen ahalduntzea sustatzea, laguntzea eta sostengatzea ditu xede GFaren politiken eta baliabide eta ekintza zehatzen bidez.

Emakume bakoitzari autonomiaz eta askatasunaz bizitzeko aukera ematen dion prozesu gisa ulerturik, mendekotasunezko botere erlazioei eta erlazio horiek sostengatzen dituzten balioei beste esanahi bat ematea ahalbidetzen du ahalduntzeak. Emakumeen eta gizonen banakako eta taldekako pentsamoldearen aldaketan eta erakundeen egiteko moduen eta erakunde horiek biltzen dituzten egituren eta espazioen eraldaketan mamitzen da ahalduntzea, begien bistakoa baita emakumei legez dagozkien eskubideak sorturik eta finkaturik ondorio positiboak sortzen direla euren ongizatean, giza garapen iraunkorra ahalbidetzeaz gain.

Emakumeak ahalduntzea ezinbesteko baldintza denez emakumeen eta gizonen berdintasunerako, nazioarte mailako araudiek –Pekinen egindako Emakumei buruzko IV. Nazioarteko Konferentziatik hasi eta Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan buka– eta espezifikoki Euskal Autonomia Erkidego eta III. Foru Plan honetan jasotako Gipuzkoa mailako araudiek esku hartzeko ildoak ez ezik politika publiko guztiak blaitu behar duen printzipio orientagarri gisa hartzen dute emakumeen ahalduntzea. Testuinguru horretan, bi ardatzaren bidez heltzen dio esku hartzeko ildoak emakumeen ahalduntzeari:

- ▶ Aitortu egiten da feminismoak eta emakumeek, euren esperientzien eta ezagutzen bidez, gizartearen antolakuntzaren eraldaketan, emakumeen bizi kalitatearen hobekuntzan, euren gizarte, ekonomia, hezkuntza, kultura eta politika aukeren zabalkundearen, genero kontzientziaren sorreran, desberdintasun diskriminatzaileei eusten dieten agindu eta usteen aurreko disidentzian eta, azken batean, berdintasunean oinarritutako etorkizuneranzko aurrerapauso demokratikoan alternatibak eraikitzerakoan betetako rola.
- ▶ Gipuzkoan sustatu egiten da emakumeen banakako ahalduntzea (indibiduala), taldekakoa (emakumeak gizateriaren edo gizartearen erdia dira esparru guztietan) eta soziopolitikoak (emakumeen presentzia, protagonismoa eta eragina eta/edo emakumeek bizitza sozialean eta politikoan parte hartzen duten taldeak edo guneak).

Jarraian azaltzen denez, **3 helburu estrategikoren** bidez antolatzen da emakumeen ahalduntzea. **Helburu horiek, aldi berean, 7 helburu operatibotan zehatzen dira, eta guztira 21 ekintza biltzen dira.**

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA**EA.HE.7. EMAKUMEEN ETA FEMINISMOAREN EKARPENAK ETA JAKINTZAK AITORTZEA “GIPUZKOA EREDUA” GARATZEKO.****Ea.HO.7.1. Aintzat hartzea eta ageriko egitea emakumeen eta feminismoaren ekarpenak berdintasuneranzko gizarte eraldaketan.**

EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ea.7.1.1. Gipuzkoako emakumeen elkarteek eta elkarte feministek Covid-19ri emandako erantzunean izan duten rola eta pandemiak euren programazioan eta baliabideetan eragindako egoeraren inpaktua ezagutzea ahalbidetzen duen azterketa bat lantzea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Ea.7.1.2. Berdintasuneranzko eraldaketa soziala bultzatzen duten emakumeen elkarteetan erabilgarri dauden zerbitzuen eta baliabideen mapa bat lantzea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Ea.HO.7.2. Gizartea jabeaztea eta sensibilizatzea emakumeen parte hartzea nagusi den guneen eta lanen ongizate kolektibo eta sozialaren garrantziaz.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ea.7.2.1. Ibilbide geografiko bat diseinatzea, non proposamen turistikoen bidez (ikustaldiak, ibilbideak, erakusketak eta abar) emakumeek Gipuzkoako giza garapen jasangarriri egindako ekarpenak ageriko egiten diren.	Kultura Zuzendaritza / Turismo Zuzendaritza				
Ea.7.2.2. Diktaturaz geroztik giza eskubideak lortzen eta finkatzen lagundu duten gipuzkoar emakumeen historiak eta ibilbideak ikertzeko eta jasotzeko azterlana egitea, kultura demokratiko integratzaileagoa bultzatzeko.	Giza Eskubideak eta Kultura Demokratikoa Zuzendaritza / Kultura Zuzendaritza				

EA.HE.8. GIPUZKOAKO EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA INDARTZEA.**Ea.H0.8.1. Emakumeen elkarten, emakumeen etxeen eta ahalduntzeko eskolen lana indartzea, emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa garatzeko tresna gisa.**

EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ea.8.1.1. Emakumeen elkarteei eta talde feministei ematen zaizkien baliabideak progresiboki egokitzea langile propioak kontratatu ahal izan ditzaten eta Gipuzkoako gizartearentzat interes orokorrekoak diren proiektuak burura eraman ahal izan ditzaten.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Ea.8.1.2. Emakumeen Etxeen lurralde mailako eredu propio bat garatzea (eginkizunak eta helburuak, lurralde aniztasuna, GFArekiko harremana, aurrekontua, etab.).	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa / Estrategia Zuzendaritza				
Ea.8.1.3. Berdintasun proiektuetarako dirulaguntza deialdiaren esparruan emakumeen elkarteei laguntzea proiektuak aurkezterakoan.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				

Ea.H0.8.2 GFaren genero zeharkakotasunaren estrategiaren bidez, emakumeen ahalduntzea sustatzea.

EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ea.8.2.1. GFAk kirol federazioei eta klubei kirol esparru guztietan eta lehiaketa maila guztietan emakumeek eta neskek parte hartzeagatik emandako dirulaguntzen eraginaren azterketa egitea.	Kirol Zuzendaritza				
Ea.8.2.2. Kirol klubetan eta federazioetan parte hartzen duten emakumeentzako ahalduntze esperientzia pilotu bat garatzea.	Kirol Zuzendaritza				
Ea.8.2.3. GGKE eta lurraldeko emakumeen arteko aliantzak sortzea, ezagutzak eta esperientziak elkar trukatuta.	Nazioarteko Lankidetzaren Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Ea.8.2.4. Neska nerabeen ahalduntzea sustatzea GFAk sustatutako haur, nerabe eta gazteentzako programen eta guneen esparruan.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza / Gazteria Zuzendaritza				

Ea.8.2.5. Kultura, jarduera ekonomiko, kirol edo beste esparru batzuetako mugimendu eta elkarteetako erantzukizun eta ordezkari karguetan ari diren emakumeen parte hartzea sustatzea eta ikusaraztea	Kultura Zuzendaritza / Kirol Zuzendaritza / Ekonomia Sustapena Zuzendaritza / Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza / Landa Udalerrien Garapenerako Zuzendaritza				
EA.HE. 9. GIPUZKOAKO EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA INDARTZEA					
Ea.H0.9.1. Gipuzkoako emakumeen elkarten eta talde feministen eragin sozial eta politiko handiagoa ahalbidetzea.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ea.9.1.1. Mugimendu feminista eta emakumeen elkarteak trebatzea berdintasunaren arloko foru politiken definizioan, egikaritzean eta ebaluazioan parte har dezaten.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Ea.9.1.2. Foru politikan emakumeek parte hartzeko Gunea finkatzea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Ea.9.1.3. Herritarren Partaidetzari buruzko 5/2018 Foru Arauan aurreikusitako parte hartzeko eta partaidetza ebaluatzeko tresnetan mugimendu feministek eta emakumeen elkarteek parte hartzeko baldintzak sorraraztea.	Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza				

Ea.H0.9.2. Emakumeen protagonismoa sustatzea kultur ekitaldi eta proposamen guztietan (artistikoak, jai girokoak, oroitzapenezkoak, kirol arlokoak eta euskararen hizkuntza normalizazioaren esparruan egiten direnak).					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ea.9.2.1. Ekintza positiboko neurriak abiaraztea emakumeen parte hartzea eta erabaki hartzeak emendatzeko nola jai guneetan hala arte, literatura eta ikus-entzunezkoen ekoizpenean.	Kultura Zuzendaritza / Hizkuntza Berdintasuna Zuzendaritza / Giza Eskubideak eta Bizikidetzaren Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa.				
Ea.9.2.2. Emakume eta neskez osatutako kirol taldeen aitortza soziala sustatzea.	Kirol Zuzendaritza				
Ea.9.2.3. Mugimendu feministari eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteei laguntza ematea emakumeen giza eskubideak ageriko egiteko erabiltzen dituzten ekintza artistikoetan.	Kultura Zuzendaritza				
Ea.H0.9.3. Emakumeen presentzia handitzea gizarte eta politika arloko ordezkari eta/edo postu publikoetan.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ea.9.3.1. GFaren aitortza publikoko sari, lehiaketa eta beste ekitaldi guztietan emakumeen presentzia handitzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.	Zuzendaritza guztiak				
Ea.9.3.2. Ordezkaritza eta erabakitze postuetan emakumeen arteko sinergiak sustatuko dituzten ekimenak bultzatzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.	Zuzendaritza guztiak				
Ea.9.3.3. Zuzendaritza-postuetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua duten edo modu aktiboan sustatzen ari diren erakundeak ikusarazteko laguntza ematea.	Zuzendaritza guztiak				



4.3. EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO



HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA HELBURU OPERATIBOEN LABURPENA

EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO

HE 10.	BERDINTASUNAREN AITORTZA SOZIALA INDARTZEA GIZA GARAPEN IRAUNKORRAREN ZATI DEN ALDETIK.	
	HO. 10.1.	Berdintasunak ekonomia eta gizarte eraldaketan duen balioaz herritarrak sentsibilizatzea.
	HO. 10.2.	Bizitzaren esparru guztietan emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien rol eta estereotipoen hausturan aurrera egitea.
HE 11.	IMPULSAR LA INCORPORACIÓN DE LA IGUALDAD EN LOS PROCESOS DE TRANSFORMACIÓN TANTO DE LA DFG, COMO DE LAS ORGANIZACIONES Y EMPRESAS DE GIPUZKOA.	
	HO. 11.1.	Enpresei eta erakundeek laguntzea berdintasuna txertatu dezaten beren kulturaren, estrategian eta kudeaketa ereduan.
	HO. 11.2.	GFAn eta Gipuzkoako erakundeetan eta enpresetan generoko soldata arrakala murrizten jarraitzea.
	HO.11.3.	Lurraldean kontziliazio erantzukidea sustatzea
HE 12.	CONTRIBUIR A LA AUTONOMÍA ECONÓMICA DE LAS MUJERES EN GIPUZKOA FOMENTANDO EL EMPLEO DE CALIDAD.	
	HO. 12.1.	GFak sustatutako proiektu ekonomiko estrategiko eta esperimentalen bidez emakumeentzako kalitatezko enpleguen sorrera bultzatzea.
	HO. 12.2.	Gipuzkoan txirotasunaren feminizazioa murrizten jarraitzea.
	HO.12.3.	Emakumeen presentzia sustatzea Zientzia eta Teknologia esparruan, bereziki postu arduratsuetan, egungo eta etorkizuneko eredu sozial eta ekonomikoa eraldatzen eta baldintzatzen ari diren gakoetako bat baita esparru hori.

HE 13.	GFAREN KONPROMISOA EMENDATZEA ZAITZEN HORNIDURAN ETA KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEAN	
	HO. 13.1.	Zaintza lanak aitortzea eta haiei balioa ematea ezinbestekoak direlako bizitzaren jasangarritasunari begira.
	HO. 13.2.	Genero ikuspegia jasotzea GFAk sustatzen duen mendekotasunaren eta desgaitasunaren arretako eremuan.
	HO. 13.3.	Kontziliazio erantzukidea sustatzea GFAn eta GFAk kudeatzen dituen baliabideetan

ILDOAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK

Nazioarteko erakundeek, esate baterako Nazio Batuen Erakundeak, eta erkidego mailakoek, adibidez Emakundeak, beren araudietan, estrategietan eta ekintza programetan jasotzen dute bizitzaren arlo guztietan genero desberdintasunei eusten dieten balioak zalantzan jartzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren aitortzan aurrerapausoak egiteko beharra, berdintasuna ezinbesteko balioa baita gizartea eta ekonomia eraldatzeko. Gainera, besteak beste herritarrekin, hedabideekin, enpresekin eta hezkuntza sistemarekin elkarlan estuan egitea proposatzen dute.

Aldaketa prozesu horretan laguntzeko xedearekin, III. Foru Planak esku hartzeko proposamen bat finkatzen du berdintasunak ekonomiaren eta gizartearen eraldaketan duen balioaz herritarrak sensibilizatzeko, horretarako lurraldeko eragileak inplikatzeko dituelarik, eta emakumeei eta gizonei bizitzaren esparru guztietan esleitzen zaizkien rolen eta estereotipoen hausturan aurrera egiteko.

Ildo horretan, giza garapen iraunkorraren ereduarekin bat etorruta, III. Foru Planak helburuak eta ekintzak zehazten ditu, GFAREN eskumenen esparruan eta kontuan izanik planaren epealdia lau urtekoa dela, bizitzaren iraunkortasuna foru politiken erdigunean jartzeko. *Giza mailako eta maila etikoko ekonomia eta gizarte eredu baterantz egiteko, hots, eredu feminista¹ batera egiteko aukera emango duen prozesu horrek luze joko du denboran, ekonomiaren eraldaketa gizartearen antolakuntzarekin lotu behar baita progresiboki. Horrexegatik, ongi ulertu beharra dago eskubide ekonomikoaren eta sozialen aldi bereko garapena ahalbidetzeko egiten den proposamena askoz ere handiagoa eta sakonagoa den eraldaketaren zati dela, oro har esparru eta maila guztietan esku hartzea eskatzen baitute, beste diskriminazio batzuen artean, *ekoizpen lanaren eta ugalketaren lanaren banaketa tradizionala, emakumeek esparru ekonomikoan sartzeko eta garatzeko prozesu osoan gertatzen diren desberdintasunak, prekarizazioa eta eragile ekonomiko izateko emakumeen gaitasunaren bazterketa* desagerraraztea ahalbidetuko duten eskubideak eraikitzeak eta finkatzeak.*

Testuinguru horretan, foru politiken plangintzarako tresna estrategikoa den aldetik, elkarren artean estu lotuta dauden alderdi hauetan jartzen du fokua III. Foru Planak:

- ▶ Genero desberdintasunak sortzen eta birsortzen dituzten mekanismoen identifikazioa. Ezagutza arloek, esate baterako ekonomia feministak, behin eta berriz adierazten dute *lan merkatuan eta gizarte antolakuntzan dauden arrakalei eusten dieten* faktoreak desagerrarazita baizik ez dela errealitate sozioekonomikoa eraldatuko. Hala bada, ezinbestekoa da *bizitza erdigunean jarriko duen ikuspegi osoa, herritar guztientzat bizi kalitatearen, justiziaren eta zuzentasunaren estandarrak xede izango dituen*a. Gure lurraldean, ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko, baldintzak sortu behar dira emakumeek autonomia ekonomikoa izan dezaten, batez ere *lan duinaren edo enplegu duinaren* bidez, norberaren gaitasunen garapena ahalbidetzen duen baliabidea delako eta pertsonak eta beren beharrezkoen gogobetetzea, baita zaintzari dagozkionak ere, gizartearen antolakuntzaren erdigunean jartzen dituelako.
- ▶ Aurrekoaren ildoan, plangintza proposamen honek lagundu egin nahi du zaintzen sistema integral baterantz egiteko, horniduran *publikoak* pisu handiagoa harturik, *estaldura handikoa, erantzukidetasunean oinarritua eta bizitzaren ziklo osorako*. Gipuzkoako Foru Aldundia jakitun da epe ertain/luzerako apustua dela, ekarpen honen arabera ezinbestean aitortu eta birdefinitu behar baitira zaintzen dimentsioa eta beren

¹Berdintasuna, Gizartea eta Etorbizuna kongresua. Mobilizazio feministen irakurketa sozialak eta politikoak. Gogoetarako gakoak. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2019.

naturalizazioa familietan, eta familia barruan, emakumeengan, gehienak baitira sektore horretan lan egiten duten pertsonen artean.

- ▶ Esku hartzearen xedea emakumeen autonomia ekonomikoa izanik, III. Foru Planak beste neurri batzuk proposatzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako proiektu ekonomiko estrategiko eta esperimentalen bidez emakumeentzako kalitatezko enpleguen sorrera bultzatzeko, Gipuzkoan txirotasunaren feminizazioa apaltzen laguntzeko eta Aldundiak sustatzen duen mendekotasunarekiko eta desgaitasunarekiko arreta eremuan genero ikuspegia txertatzeko, betiere kontziliazio erantzukidea bultzatuz.
- ▶ Gainera, enpresei eta erakundeei laguntzeko neurriak planteatzen dira alde batetik haien kultura, estrategia eta kudeaketa eremuan progresiboki berdintasuna txertatzeko, eta bestetik, nola Foru Aldundian hala lurraldeko erakundeetan eta enpresetan, generoko soldata arrakala txikitzen laguntzeko.

Jarraian azaltzen denez, **4 helburu estrategikoren** bidez antolatzen da Ekonomiak eta Gizarte Antolakuntza Eraldatzea Berdintasuna bermatzeko ildoak. **Helburu horiek, aldi berean, 11 helburu operatibotan zehazten dira, eta guztira 33 ekintza biltzen dira.**



EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO**EK.HE.10. BERDINTASUNAREN AITORTZA SOZIALA INDARTZEA GIZA GARAPEN IRAUNKORRAREN ZATI DEN ALDETIK.****Ek.H0.10.1. Berdintasunak ekonomia eta gizarte eraldaketan duen balioaz herritarrak sentsibilizatzea.**

EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ea.10.1.1. Herritarrak sentsibilizatzea genero desberdintasunek bizitzaren esparru guztietan nola eragiten duten jabearazteko.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Ek.10.1.2. Lan bateratua egitea lurraldeko eta tokiko hedabideekin lurraldeko aurrerabide sozial, kultural eta ekonomikoarekin zerikusia duten edukietan berdintasuna aintzat hartuko dela bermatzeko.	Komunikazio Zuzendaritza / Hizkuntza Berdintasuna Zuzendaritza				
Ek.10.1.3. Covid-19k sorrarazitako krisialdi globalak (krisialdi ekonomikoa, soziala, sanitarioa eta segurtasun arlokoa) emakumeengan eta gizonengan, bereiz hartuta, eragindako inpaktuari buruzko azterlan bat egitea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa / Ekonomia Sustapena Zuzendaritza / Estrategia Zuzendaritza				
Ek.10.1.4. Ekonomia sozial eta solidarioan oinarritutako garapen iraunkorren eta berdintasunezkoen esperientziak ezagutaraztea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				

Ek.H0.10.2. Bizitzaren esparru guztietan emakumei eta gizonei esleitzen zaizkien rol eta estereotipoen hausturan aurrera egitea.

EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ek.10.2.1. Haur eta gazteentzako foru zerbitzuetan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko eduki eta jarduerak sartzea.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioeko Zuzendaritza / Gazteria Zuzendaritza				
Ek.10.2.2. Gipuzkoako gizartean hautematen diren aldaketak, mendekotasun eredu hegemonikoei aurre egiten dietenak, ageriko egiteko eta sustatzeko jarduerak programatzea (film laburren eta bideoen lehiaketak, irratsaioak, publizitate iragarkiak, publizitate instituzionala, etab.).	Kultura Zuzendaritza / Hizkuntza Berdintasuna Zuzendaritza / Komunikazio Zuzendaritza				

EK. HE.11. GFAREN ETA GIPUZKOAKO ERAKUNDE ETA ENPRESEN ERALDAKETA PROZESUETAN BERDINTASUNAREN TXERTAKETA SUSTATZEA.					
Ek.HO.11.1. Enpresei eta erakundeei laguntzea berdintasuna txertatu dezaten beren kulturaren, estrategien eta kudeaketa eremuan.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ek.11.1.1. Legeak berdintasunerako plan bat edukitzea behartzen ez dituen enpresei berdintasunerako neurriak ezartzen eta kontziliazioa ahalbidetzen laguntzea, zaintza lanetan gizonen erantzukidetasuna sustatzeko.	Ekonomia Sustapena Zuzendaritza / Estrategia Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Ek.11.1.2. Lurraldean berdintasuna eta kontziliazio erantzukidea lortzeko neurrien ezarpenaren diseinuan lan egiten ari diren gipuzkoar enpresen artean ezagutzak, aitortzak eta agerikotasuna trukatzeko topaketak egitea.	Ekonomia Sustapena Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa / Estrategia Zuzendaritza				
Ek.11.1.3. Gipuzkoako enpresetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan kopuruaren eta proportzioaren azterketa bat egitea, eta plan horien ezarpen mailaren eta eragindako inpaktuaren azterketa arlo ekonomikoen arabera.	Ekonomia Sustapena Zuzendaritza				
Ek.11.1.4. Esparru ekonomiko eta sozialeko eragileen artean berdintasun irizpideak kudeaketan txertatzeak dakartzak onurak ezagutaraztea.	Ekonomia Sustapena Zuzendaritza				
Ek.11.1.5. Ordezkaritza txikia duten arloetan, nola industria sektorean hala lehenengo sektorean, emakumeak kontratatuzko pizgarriak finkatzea eta pizgarri horien eraginaren gaineko jarraipena egitea.	Ekonomia Sustapena Zuzendaritza				
Ek.HO.11.2. GFAn eta Gipuzkoako erakundeetan eta enpresetan generoko soldata arrakala murrizten jarraitzea.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ek.11.2.1. Gipuzkoako enpresetan soldata-arrakalaren azterketa bultzatzea.	Ekonomia Sustapena Zuzendaritza				
Ek.11.2.2. Foru Aldundiko lanpostuen arrisku eta arriskugarritasun osagarriak zehazten dituzten irizpideen berrazterketa egitea genero ikuspegia aintzat harturik.	Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza				

Ek.11.2.3. Enpresei laguntzea genero ikuspegia aintzat hartzen duten lanpostuen balorazioak egiterakoan.	Ekonomia Sustapena Zuzendaritza				
Ek.H0.11.3. Lurraldean kontziliazio erantzukidea sustatzea					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ek.11.3.1. HerriLab proiektua garatzea Gipuzkoako udalerrri batean kontziliazio erantzukiderako esperientzia pilotu gisa.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Ek.11.3.2. HerriLab proiektuaren esparruan egindako ikaskuntzak sistematizatzea baliozkoak izateko eta Gipuzkoako beste udalerrri batzuetan erabilgarri izateko.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
Ek.HE.12. GIPUZKOAKO EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA BULTZATZEA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ					
Ek.H0.12.1. GFAk sustatutako proiektu ekonomiko estrategiko eta esperimentalen bidez emakumeentzako kalitatezko enpleguen sorrera bultzatzea.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ek.12.1.1 GFAk erabilitako sistemetan genero adierazleak txertatzea enpleguaren kalitatea neurtzeko.	Ekonomia Sustapena Zuzendaritza				
Ek.12.1.2. GFAk sustaturiko ekintzailtza eta autoenplegu programek emakumeengan eta gizonengan, bereiz hartuta, duten eragin desberdinaren azterketa egitea eta emakumeen autonomia ekonomikoa hobetzeko proposamenak lantzea.	Ekonomia Sustapena Zuzendaritza				
Ek.12.1.3. Emakumeek Gipuzkoako lurraldean sortutako enpresei eusteko laguntza neurriak ezartzea.	Ekonomia Sustapena Zuzendaritza				

Ek.H0.12.2. Gipuzkoan txirotasunaren feminizazioa murrizten jarraitzea.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ek.12.2.1. Genero ikuspegia txertatzea Gipuzkoako txirotasunari eta gizarte bazterketari buruzko 4. Inkestan, Gipuzkoako emakumeek txirotasunarekiko bizi duten egoera espezifikoak aztertutik.	Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendaritza				
Ek.12.2.2. Elkar-rekin Lanean foru programaren esparruan, gizarte bazterketan bizi diren edo egoera horretan egoteko arriskua duten emakumeak gizarteratzeko bideak lantzea, kontuan izanik aurre egin beharreko generoko egiturazko desberdintasunak.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusio Zuzendaritza/ Proiektu Estrategikoak Zuzendaritza				
Ek.12.2.3. Lan-hautaketako enpresetan emakume migratzaileak diskriminatzeari buruzko analisia.	Giza Eskubideen eta Kultura Demokratikoaren Zuzendaritza				
Ek.H0.12.3. Emakumeen presentzia sustatzea Zientzia eta Teknologia esparruan, bereziki postu arduratsuetan, egungo eta etorkizuneko eredu sozial eta ekonomikoa eraldatzen eta baldintzatzen ari diren gakoetako bat baita esparru hori.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ek.12.3.1. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal sarearen esparruan emakume zientzialarien ahalduntzea sustatuko duten esperientzia pilotu bat sustatzea.	Berrikuntzako eta Internazionalizazioko Zuzendaritza				
Ek.12.3.2. Emakumeak, eta bereziki emakume gazteak, mundu teknologikora hurbiltzea bultzatuko duten neurriak sustatzea.	Berrikuntzako eta Internazionalizazioko Zuzendaritza				
Ek.12.3.3. Zientzia eta teknologia esparruan postu garrantzitsuetan ari diren emakumeen identifikazioa sustatzea eta nazioarte mailako jardunbide egokien azterketa egitea emakume zientzialariak lanpostu arduratsuetara bil daitezzen.	Berrikuntzako eta Internazionalizazioko Zuzendaritza				

EK.HE.13. GFAREN KONPROMISOA EMENDATZEA ZAITZEN HORNIDURAN ETA KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEAN					
Ek.HO.13.1. Zaintza lanak aitortzea eta haiei balioa ematea ezinbestekoak direlako bizitzaren jasangarritasunari begira.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ek.13.1.1. Kultur eta aisialdiko programazio eta jardueretan zaintza lanen erantzukidetasunarekin eta bizitzari eta gizarteari eusteko duen garrantziarekin lotutako edukiak sartzea, eta zaintzaileen esku beren parte hartzea ahalbidetuko duten azpiegiturak eta baliabideak jartzea.	Kultura Zuzendaritza / Gazteria Zuzendaritza / Kirol Zuzendaritza / Hizkuntza Berdintasuna Zuzendaritza				
Ek.13.1.2. Zaintza lanak familiei eta emakumeei esleitzeko joeraren naturalizazioa urratuko duten ekimenak (kanpainak, jardunaldiak, publizitatea...) diseinatzea.	Erakunde Publikoen Zuzendaritza				
Ek.13.1.3. GFako laguntza baliabideetako zaintzaileen beharrian espezifikoei erantzungo dien autozaintzako programa bat diseinatzea, aintzat harturik erreferentziazko beste esperientzia batzuk.	Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritza / Erakunde Publikoen Zuzendaritza				
Ek.13.1.4. GFak dauzkan tresnetan mendekotasunak dauzkaten pertsonen zaintza duinak bermatzeko eta zaintzaileentzat kalitatezko lan baldintzak bermatzeko tresnak sartzea.	Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendaritza				
Ek.HO.13.2. Genero ikuspegia jasotzea GFak sustatzen duen mendekotasunaren eta desgaitasunaren arretako erudian.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
Ek.13.2.1. Genero berdintasunerako politikek arreta eredu berrian (Gizarte Politiken Proiektu Gidari Estrategikoa, 2020-2023) duten eraginaren ebaluazioa egitea.	Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendaritza				

<p>Ek.13.2.2. Foru baliabide eta zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresa esleipendun langileek berdintasun alorrean oinarritzko prestakuntza edo prestakuntza espezializatua (arduren araberakoa) izateko neurriak sustatzea.</p>	<p>Mendekotasunaren eta desgaitasunaren arretako Zuzendaritza Nagusia / Plangintzako, inbertsioetako eta prestazio ekonomikoetako Zuzendaritza / Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza / Erakunde Publikoen Zuzendaritza / Ekonomia Sustapena Zuzendaritza</p>				
<p>Ek.H0.13.3. Kontziliazio erantzukidea sustatzea GFAn eta GFak kudeatzen dituen baliabideetan</p>					
<p>EKINTZAK</p>	<p>ARDURADUNA</p>	<p>2020</p>	<p>2021</p>	<p>2022</p>	<p>2023</p>
<p>Ek.13.3.1. Gizonek kontziliazioa gauzatzeko neurrien erabilera sustatzeko estrategia bat diseinatzea eta aplikatzea, betiere emakumeentzako kaltegarria ez bada edo desberdintasuna ekartzen ez badu.</p>	<p>Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza</p>				
<p>Ek.13.3.2. Laneko arriskuak prebenitzeko ikastaroetan izaera psikosozialeko arriskuak aintzat hartzea, horien artean “lanaldi bikoitzaren” ondorioak (antsietatea, nekea, etab.) eta emakumeengan ondorio horiek prebenitzeko erantzukidetasunaren beharraren kontzientziakontuan harturik.</p>	<p>Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza</p>				



4.4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK



HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA HELBURU OPERATIBOEN LABURPENA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK: *AURRE II*

HE 14.	Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko ikerketa eta informazioa biltzeko sistemak eta datuak komunikatzeko eta ezagutarazteko bideak hobetzea.	
HO. 14.1.	Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko ikerketa eta informazioa biltzeko sistemak eta datuak komunikatzeko eta ezagutarazteko bideak hobetzea.	
HO. 14.2.	Emakumeen aurkako indarkeria matxistari nola heltzen zaion hobeto ezagutzea, indarkeria egoera horiek berariaz erantzuten ez dituzten foru zerbitzu eta baliabideetatik.	
HO. 14.3.	Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arbuio soziala handitzea, indarkeria mota hori eragiten duten generoko desberdintasunak daudela ulertuta.	
HO. 14.4.	GFAren zerbitzu eta baliabideetatik ahalbidetzea emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta espezializatua ematea	
HE 15.	GFAren arreta emateko eredia indarkeria matxistari egokitzea, esparru guztietatik bideratutako esku hartzearen xedea emakumeen eta nesken ahalduztea izan dadin	
HO. 15.1.	Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko foru zerbitzuen irismena eta kalitatea handitzea.	
HO. 15.2.	Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko eredia beste foru baliabideetara, espezifikoki indarkeriaren arlokoak ez direnetara, zabaltzea.	
HO. 15.3.	Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen kalteak banan-banan erreparatzeko eskubidearen aldeko foru ekimenean aurrerapausoak egitea.	

HE 16.	Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan esku hartzen duten erakundeetan eta beren artean koordinazioa hobetzea..	
	HO.16.1.	Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan foru eta toki politikak lerrokatzea.
	HO. 16.2.	Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta ematean esku hartzen duten erakundeetan eta erakunde horien artean koordinazio eraginkorra ahalbidetuko duten tresnak sortzea.

ILDOAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK

Generoen arteko desberdintasunen eta botere erlazioen ondorioz sortzen den gertaera sozialetako bat da emakumeen aurkako indarkeria matxista, eta gizarte garaikideetan jazotzen den giza eskubideen urraketa sarrienetako bat dakar berekin batean.

Indarkeria sexista hori, emakumeen aurkako diskriminazioa dakarrena soilik emakume izateagatik, aintzat hartzen du III. Foru Plan honek Istanbulko Itunarekin eta erreferentziazkoa duen beste araudi batekin bat etorririk, bereziki berdintasunaren gaian eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren deuseztapenaren arloan EAEn eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan indarrean dagoenarekin. Aintzat hartzen ditu esparru publikoan (besteak beste, lanean, ikastetxean, osasun zerbitzuan, kiroletan, hedabideetan, aisialdi eta jai guneeetan eta ingurune birtualetan) eta pribatuan (familiar eta etxean) emakumeen aurka –neskak, nerabeak eta emakume transexualak barne hartuta– bideratzen diren indarkeria guztiak. Indarkeria zuzenean nozitzen duten emakume, nerabe eta neskez gain, indarkeria mota horretatik bizirik irtendako biktima dira indarkeria mota hori erabiltzen den ingurunean bizi diren mendeko pertsonak, esate baterako, seme-alabak.

Araubide esparrutik abiatutik, esku hartzeko ildo honetan jasotzen den estrategiaren arabera emakumeen aurkako indarkeria matxista dira bikote barnean edo bikotekide ohiaren aurka bideratutakoa, familia barruko indarkeria, indarkeria sexuala, feminizidioa, emakume eta nesken salerosketa, esplotazio sexuala eta laborala, jazarpen sexuala lan esparruan, emakumeen genitalen mutilazioa, ezkontza bortxatuak eta beste jokabide tradizional kaltegarriak, bortxa edo askatasunaren gabetze arbitrarioa, tortura, generoko jazarpena eta indarkeria politikoa eta emakumeen eta nesken duintasuna, osotasuna edo askatasuna urratzen duten edo urratu dezaketzen beste edozein indarkeria mota, araudian aurreikusten dena. Indarkeria mota horiek fisikoki, sexualki, psikologikoki eta ekonomikoki erabili daitezke, eta bizirik irtendako biktimgan modu desberdinean eragiten duten kalteak eta sufrimenduak dituzte ondorio.

Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Foru Planak erreferentziatzen du eta jarraipena eman nahi dio Gipuzkoako Foru Aldundiak historikoki egin duen lan ibilbide handiari emakumeak eta neskek indarkeria matxistari gabeko bizitzak izan ditzaten ahalbidetzeko. Lan hori, betiere beste erakundeekin elkarlanean bideratu dena, azkartu egin da Covid-19ak sorrarazitako egoeran zehar, eta kontuan hartu da indarkeria mota horri aurre egiten dieten emakume eta neska askoren zaurgarritasun handiagoa isolamenduaren eta bakardadearen ondorioz bizi duten eta bizi izan duten egoeran. Gainera, urte hauetan egindako lanaren emaitzari esker, mugarri batzuk finkatu dira emakumeen aurkako indarkeria matxistari heltzeko, azken mugarri horien artean indarkeria sexista jasan dutenei arreta emateko GFAREN baliabide espezifikoaren ebaluaziotik ondorioztatutako ikaskuntzak daudelarik, eta hobetu egin da koordinazioa tokiko administrazioan indarkeria sexistari erantzun publiko instituzionalak emateko protokoloak landurik. Era berean, esperientzia eraldatzaileak izaten ari dira indarkeriari aurrea hartzeko gaian gazte jendearekin bideratzen ari direnak Lurraldeko udalekin batera lan prozesuak sustatuz eta horietan parte hartuz, esate baterako Beldur Barik programaren bidez, edo indarkeria sexista sistematikoki arbuiatzeko GFAREN erantzunen eta adierazpenen bidez.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurreko GFAREN jarduera behar bezala bideratzen jarraitzeko, honako lan ardatz hauen bidez heltzen dio esku hartzeko ildo honek emakumeen aurkako indarkeria matxistari Gipuzkoan:

- ▶ Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ezaugarriei buruzko ikerketa hainbat esparrutan sustatzea, eta indarkeriari buruzko informazioaren bilketa eta informazio hori eragileei eta herritarrei komunikatzeko bidea hobetzea.

- ▶ Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren gaian aurrera egitea sentsibilizazio, prebentzio eta formakuntza alorretan.
- ▶ Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko eredu hobetzea eta Istanbulko Itunean indarkeria horren biktimei aitortzen zaien kalteetatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidean sakontzea.
- ▶ Koordinazioa, Gipuzkoan indarkeriari arreta osoagoa, eraginkorragoa eta kalitatezkoa emateko bide gisa.

Jarraian azaltzen denez, **3 helburu estrategikoren** bidez antolatzen da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ildoak. **Helburu horiek, aldi berean, 9 helburu operatibotan zehazten dira, eta guztira 27 ekintza biltzen dira.**



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK: *AURRE II***B.HE.14. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO IKERKETA, SENTSIBILIZAZIO, PREBENTZIO ETA FORMAKUNTZA ALORRETAN AURRERA EGITEA****I.HO.14.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko ikerketa eta informazioa biltzeko sistemak eta datuak komunikatzeko eta ezagutarazteko bideak hobetzea.**

EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
I.14.1.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren gaiari eta ezaugarriari buruzko hausnarketa espezializatueterako guneak indartzea, kontuan izanik, besteak beste, Covid-19ren eragina.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
I.14.1.2. GFAk arreta emandako emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuei buruzko informazio homogeneoa biltzeko sistema diseinatzea.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
I.14.1.3. Foru zerbitzuek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei emandako arretaren gaineko urteko jarraipen sistema hobetzea.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
I.14.1.4. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari emandako arretaren emaitzak sistematikoki jasotzea eta aldizka ezagutaraztea GFAREN programa, baliabide eta zerbitzuetatik.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza				
I.14.1.5. Gipuzkoan sexualki eta laboralki esplotatzeko emakume eta nesken Salerosketaren errealitateari buruzko txosten bat egitea.	Giza Eskubideak eta Kultura Demokratikoa Zuzendaritza				

I.HO.14.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari nola heltzen zaion hobeto ezagutzea, indarkeria egoera horiek berariaz erantzuten ez dituzten foru zerbitzu eta baliabideetatik.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
V.14.2.1. Indarkeria matxista sexualak haurtzaroan dauzkan ezaugarriei buruzko ikerketa egitea, foru baliabideek eta zerbitzuek indarkeria mota horri aurre egin ahal izateko behar dituzten baliabideetan sakonduz.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
V.14.2.2. Pertsona adintsuentzako eta/edo desgaitasunak dauzkaten pertsonentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan indarkeria matxista prebenitzeko eta tratatzeko protokoloa lantzea eta ezagutaraztea.	Mendekotasunari eta Desgaitasunari Arreta Zuzendaritza / Erakunde Publikoen Zuzendaritza				
V.14.2.3. Haurtzaroan eta nerabezaroan sexu-indarkeria matxista prebenitzeko eta detektatzeko tresnak sortzea, bai espazio komunetan, bai espazio espezifikoetan, hala nola kirol- eta aisialdi-espazioetan.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza / Kirol Zuzendaritza / Gazteria Zuzendaritza				
I.HO.14.3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arbuio soziala handitzea, indarkeria mota hori eragiten duten generoko desberdintasunak daudela ulertuta.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
I.14.3.1. Fokua emakumeen eta gizonen desberdintasunen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arteko loturan jartzen duten sentsibilizazio ekintzak indartzea.	Komunikazio Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
I.14.3.2. Egindako kalteari erantzun publikoa emateko eta erreparazio kolektiboa gauzatzeko eskubidea sustatzea, indarkeria matxista jasaten duten emakumeak berriz ere biktima izan daitezzen saihesturik.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
I.14.3.3. EAEko gazteen artean indarkeria matxistari aurrea hartzeko Beldur Barik erakunde arteko programan parte hartzea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
I.14.3.4. Ikus-entzunezko materialak diseinatuta, Gipuzkoan indarkeriari aurrea hartzeko programa bat abiaraztea, gazteei zuzendua.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa / Gazteria Zuzendaritza / Hizkuntza Berdintasuna Zuzendaritza				
I.14.3.5. Kirol munduan emakumeen eta nesken aurkako indarkeria matxista prebenitzeko eta horretan sentsibilizatzeko ekintzak abiaraztea.	Kirol Zuzendaritza				

I.HO.14.4. GFaren zerbitzu eta baliabideetatik ahalbidetzea emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta espezializatua ematea					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
I.14.4.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko foru zerbitzu espezifikotako langileei berdintasunaren arloko formakuntza espezializatua ematea.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza				
I.14.4.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta espezifikoa ematen ez dieten foru zerbitzuetako langileei berdintasunaren arloko formakuntza espezializatua ematea, fokua haurrei eta nerabeei zuzendutako zerbitzuetan jarririk.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza				
I.HE.15. GFAREN ARRETA EMATEKO EREDUA INDARKERIA MATXISTARI EGOKITZEA, ESPARRU GUZTIA ETATIK BIDERATUTAKO ESKU HARTZEAREN XEDEA EMAKUMEEN ETA NESKEN AHALDUNTZEA IZAN DADIN					
I.HO.15.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko foru zerbitzuen irismena eta kalitatea handitzea.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
I.15.1.1. Indarkeria matxistaren emakume biktimentzat arreta psikosozial eta soziojuridikoko zerbitzua diseinatzea eta abian jartzea.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
I.15.1.2. 2019an egindako ebaluazioaren emaitzak aintzat harturik, emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta espezifikoa emateko baliabideak eta zerbitzuak progresiboki egokitzea.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza				

I.H0.15.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko eredu beste foru baliabideetara, espezifiki indarkeriaren arlokoak ez direneta, zabaltea.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
I.15.2.1. Indarkeria matxistaren arloko foru lan guneak egokitzea, gai horri erantzuteko zerbitzu guztiak lan gune horietan bil daitezzen, eta horrenbestez, biktinekiko arreta modu integralean eta koordinatuan bideratu ahal izan dadin.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
I.15.2.2. Hurrei eta nerabeei zuzendutako zerbitzuetatik, emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arreta hobetzeko lan plan bat zehaztea eta abian jartzea.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza Nagusia / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
I.H0.15.3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen kalteak banan-banan erreparatzeko eskubidearen aldeko foru ekimenean aurrerapausoak egitea.					
EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
I.15.3.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko foru baliabideak 2018-2021eko Gizarte Zerbitzuen Mapari egokitzea.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza				
I.15.3.2. Laguntza eta aholkuak emanda, eta talde feministekin, emakumeen elkarteekin, Ahalduntzeko Eskolekin eta Emakumeen Etxekin koordinatuta, emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arretaren dimentsio komunitarioa indartzea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				

I.HE.16. GIPUZKOAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN ARLOAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEETAN ETA BEREN ARTEAN KOORDINAZIOA HOBETZEA.**I.HO.16.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan foru eta toki politikak lerrotzea.**

EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
I.16.1.1. GFAn indarkeria matxistaren arloan ari diren departamentuen arteko koordinazio guneak indartzea.	Gazteria Zuzendaritza / Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
I.16.1.2. Lurralde mailako koordinazio gune bat sortzea GFaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxista jasaten duten emakumei harrera hobea egiteko Erakundeen Arteko II. Akordioan parte hartu zuten udalez gaingiko arreta zerbitzuen artean.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				
I.16.1.3. GFAk eta toki erakundeek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean jarduteko moduak koordinatzeko partekatzen dituzten guneak sendotzea.	Gazteria Zuzendaritza / Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza / Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				

I.HO.16.2. Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta ematean esku hartzen duten erakundeetan eta erakunde horien artean koordinazio eraginkorra ahalbidetuko duten tresnak sortzea.

EKINTZAK	ARDURADUNA	2020	2021	2022	2023
I.16.2.1. GFaren eta toki erakundeen artean, emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arretan koordinazioa hobetzeko tresnak lantzea.	Haurren Babeseko eta Gizarte Inklusioko Zuzendaritza				
I.16.2.2. Sexu jazarpen eta sexuagatiko jazarpen egoeren aurrean jarduteko eta haiei aurrea hartzeko foru protokoloa lantzea.	Araubide Juridikoa eta Pertsonen Kudeaketa Zuzendaritza				
I.16.2.3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean jarduteko eta indarkeria mota horri aurrea hartzeko tokiko Protokoloak sustatzea.	Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoa				

5. KUDEAKETA SISTEMA



5. KUDEAKETA SISTEMA

Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Foru Planaren kudeaketa sistemak definitzen eta artikulatzen ditu deskribatutako ekintzak GFAn era koordinatuan eta eraginkorrean **implementatzea** ahalbidetuko duten elementuak. Ildo horretan, alde batetik III. Foru Plana abian jartzeko jarraibideak eskaintzen ditu aurkeztutako sistemak, eta bestetik, planaren iraunaldian zehar haren garapenean inplikatzaren diren eragileen erantzukizuna zehazten du.

Plangintza honen ardatz diren printzipioekin bat etorrira, programazio prozesu erantzukidetzat ulertzen da inplementazioa, GFAko departamentu, zuzendaritza eta sail guztiek parte hartzen dute planaren edukiak garatu daitezzen. Aldi berean, parte hartze aktiboaren bidez, lortzen da erakunde osoa berdintasun arloko gaitasun teknikoaz jabetzea.

Bestalde, kontuan izanik Covid-19ak sorrarazitako egoeraren ondorioz planaren gutxienez zati bat landu den eta garatuko den "ziurgabetasun" unea, jarduteko jarraibide orokor batzuk izatea ahalbidetuko duen mekanismotzat hartzen da kudeaketa sistema hau, baina jarraibide horiek ez dute plangintzan ongi arazoitutako aldaketak sartzeari zailduko, guztiz aldarokorra den errealtatera doitu ahal izan daitezzen.

Jarraian aurkezten dugu kudeaketa sistema, bertan azaltzen dira planaren kudeaketa ahalbidetuko duten GFAREN barne egiturak, haien eginkizunak azaltzen dira, eta plana inplementatzea ahalbidetuko duten funtsezko elementuen berri ematen da (urteko programazioak, gauzatzeko prozesua eta jarraipena eta ebaluazioa).

5.1. III. FORU PLANA KUDEATZEKO BARNE EGITURAK

► EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ORGANOA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren II. Atalak zehazten du Berdintasunerako Organoa dela planaren **organismo sustatzailea**, eta foru esparruan hari dagokiola aholkularitza, laguntza, koordinazio eta planaren gaineko jarraipen eta ebaluazio lanak egitea, betiere ekintzak burura eramateko ardura duten zuzendaritzekin solaskidetzara eta koordinazioa bermaturik. Gainera, bere eskumeneko ekintzak, aipatutako Foru Arauaren II. Tituluan jasotakoak, inplementatzeko ardura du. Horretarako, aipatutako Foru Arauan finkatutakoari jarraiki, A Taldean bildutako teknikariek osatzen dute Berdintasunerako Organoa, emakumeen eta gizonen berdintasun arloko unibertsitate ikasketa espezifikokoak egin dituzten teknikariek. Berdintasun Organoko teknikari guztien espezializazioak ahalbidetuko du III. Foru Planaren sustapen eta jarraipen egokia.

Udalerrri mailan, betiere foru arau hori aintzat harturik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzeko baldintza egokiak sortzeko sustapen neurriak zehaztu behar ditu Berdintasunerako Organoak.

Halaber, Berdintasunerako Organoaren egitekoa da, III. Foru Planean jasotzen den bezala, mugimendu feminista zein emakumeen elkarte mugimendua sustatzeko eta indartzeko baldintzak sortzen laguntzea, berdintasunerako foru politikaren garapenean solaskideak baitira horiek. Hortaz, Gipuzkoan berdintasunerako eragin positiboa duten sareak eta praktikak indartzeko baldintza egokien sorrera bermatu behar du. Horretarako, **GUNEA** du Berdintasunerako Organoak, mugimendu feministarekin eta berdintasunaren aldeko emakume elkarteekin solastatzeko eta parte hartzeko gunea, martxoaren 18ko 9/2014 Foru Dekretuaren bidez sortua. Geroago, 2016an, GUNEA birdefinitzeko prozesua jarri zen martxan emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Organoak egindako proposamen batetik abiatuta. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Araua kontuan hartzeaz gain, proposamen hori egokitu egin zitzaion herritarren

partaidetzari buruzko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Arauan finkatutakoari. Lan horri esker adostu zen GUNEAREN² funtzionamendu eredu

Azkenik, atal honetan III. Foru Planaren kudeaketarako barne egiturak deskribatzen diren arren, azpimarratu behar da Berdintasunerako Organoak parte hartzen duela, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkaturik, Emakundek sustaturiko **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordean**, horixe baita Emakundek sustatutako organoa euskal herri administrazio guztiek berdintasun arloan garatzen dituzten politika eta programak koordinatzeko. Lankidetzaz hori politika mailan ez ezik maila teknikoan ere eramaten da burura, zehazki Erakunde arteko Talde Teknikoaren eta “ad hoc” osatutako lan taldeen bidez (berdintasun klausulak, araudiaren genero eraginaren lehen ebaluazioa, politika publikoen kalitate estandarrak, etab.).

► DEPARTAMENTU ARTEKO BATZORDEA

Izaera politiko-teknikoko organoa da GFAREN 2020-2023 epealdirako Plan Estrategikoaren eta zeharkako politiken (horien artean dago berdintasunarena) jarraipen lanaz arduratzen den Departamentu arteko Batzordea.

Ahaldun Nagusia du buru, eta departamentu guztietako zuzendariak eta zerbitzuburu batzuk dira gainerako batzordekideak.

Berdintasunerako III. Foru Planari dagokionez, hauexek ditu eginkizun nagusiak:

- ➔ Dagokion foru departamentu barruan, maila politikoan zein teknikoan, aipatutako planaren lan plana eta urteko jarraipen txostena ezagutzea eta ezagutaraztea.
- ➔ Dagokion foru departamentu barruan, maila politikoan zein teknikoan, plana abiarazteko baldintza egokien sorrera ahalbidetzea.

► DEPARTAMENTU BATZORDEAK

Batzorde hauek dira departamentu bakoitzaren baitan jarduerak koordinatzeaz arduratzen diren organoak. Dagokion foru departamentuko zuzendariak eta zerbitzuburuak osatuta dago departamentu batzorde bakoitza.

Berdintasunerako III. Foru Plana gauzatzeari dagokionez, bakoitzaren departamentuari dagokion urteko programazioaren lanketa koordinatu beharko dute aurreikusitako epearen arabera eta hurrengo ekitaldiko foru aurrekontuen zikloarekin bat etorrita. Era berean, planifikatutako ekintzen gaineko jarraipena egin behar dute.

► BERDINTASUNERAKO DEPARTAMENTU UNITATEAK

2/2015 Foru Arauaren 10. artikulua arabera, berdintasunerako departamentu unitate administratiboen helburua da Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu bakoitzaren, foru organismo autonomoen, eta horietara atxikitako enpresa entitate publikoen zein foru merkataritza sozietateen jardueretan emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa zeharkako bihurtzeko gaitasuna indartzea.

Une honetan izendatuta daude Unitate horiek osatzen dituzten pertsonak Ogasuna eta Finantzak, Gizarte Politikak eta Gobernantza Departamentuetan. Gainera, planak berak aurreikusten du unitate horiek beste departamentuetan ere osatzea eta dagokion formakuntza espezializatua ematea.

Planarekiko funtzioari dagokionez, ekintzak sustatuko ditu bere departamentuko zuzendaritzei eta zerbitzuei aholkuak emanez berdintasunaren alorrean, betiere urteko programazioa eta programazio horren gauzatea eta jarraipena hobetze aldera. Gainera, unitate horiei dagokie Berdintasunerako

² <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/berdintasuna/lineas-de-trabajo/empoderamiento-y-participacion-socio-politica>

Organoarekin komunikazio bide iraunkorra edukitzeko ardura, foru mailan berdintasunerako politikarekiko lana behar bezala koordinatzeko.

5.2. KUDEAKETA SISTEMAREN FUNTSEZKO ELEMENTUAK

Jarraian adierazten diren urteko programazioak, gauzatzeko prozesua eta jarraipen eta ebaluazio sistema dira kudeaketa sistemaren funtsezko elementuak.

► URTEKO PROGRAMAZIOAK

GFAK abian jarriko duen jarduera multzoaren zati izan daitezen eta dagokien aurrekontua izan dezaten, EBA foru plangintza tresnan landuko dira urteko programazioak.

Planean hasiera batean aurreikusitako epeak kontuan izanik bereiziko dira ekintzak, baina beharrezkoa den malgutasunaz jokatu da ekintzaren bat aurreratu edo atzeratu ahal izateko, esku hartzeko testuinguruaren arabera komenigarria baldin bada.

Hurrengo urteko aurrekontuan jasota geratu eta gauzatu dadin, urte bakoitzeko apiril inguruan abiaraziko da urteko programazioa. Horretarako, lan saio bat egingo da Berdintasunerako Organoak koordinaturik, eta bertan parte hartuko dute, maila politikoan zein teknikoan, planean ardurak dauzkaten zuzendaritza guztiak. Saio horretan bistaratuko dira urtean lortu beharreko helburuak, eta gogoeta egingo da helburu horiek lortzeko abiarazi beharreko ekintzen inguruan.

Epe jakin bat finkatuko da arduradun bakoitzak abiarazi beharreko ekintzen inguruko lehen hurbilketa egin dezan eta, EBAREN bidez, ondorengo programazioan mamitzeko aholkularitza behar duen ala ez erabaki dezan.

Ekainean/uztailean, eta Berdintasunerako Departamentu Unitateen eta Berdintasunerako Organoaren aholkuak jaso ondoren, III. Foru Planaren ekintzen zuzendaritza edo zerbitzu bakoitzak EBA aplikazioan sartuko ditu hurrengo urtean gauzatu dituen ekintzak, eta zehaztuko ditu horiek burura eramateko aurrekontuak.

Aurrekontu programa bakoitzari begira egindako plangintza aztertuko du Berdintasunerako Organoak, eta hala dagokionean, hobetzeko proposamenak gaineratuko ditu.

Urtero errepikatuko da plangintza sistema hau, eta sortzen den informazioak elikatuko du Gipuzkoako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Foru Planaren gaineko jarraipen prozesua.

► GAUZATZEKO PROZESUA ETA JARRAIPENA

Plana gauzatzeko aldiak, alde aurretik zuzendaritza arduradun bakoitzaren aholkularitza eta gaikuntza premiak ezaguturik, Berdintasunerako Organoak urteko programazioan jasotako ekintzak inplementatzen eta horretarako behar diren aholkuak ematen lagunduko du, betiere jasotako eskaeren eta ezarritako lehentasunen arabera. Nolanahi ere, planaren inplementazioaz arduratzen den zuzendaritzak gauzatu du programatutako ekintza, eta zuzendaritza horrexek ordainduko ditu gastuak.

Jarraipen sistema ez da kontrol sistematzat hartzen, baizik eta planifikatutakoa gauzatuakarekin alderatzea ahalbidetzen duen informazioa biltzeko sistematzat, helburuen lorpena ahalbidetzen duten gakoak edo helburuen lorpena atzeratzen edo zailtzen duten eragozpenak identifikatzen baititu.

Plan Estrategikoaren eta zeharkako foru politiken jarraipen orokorreko sistema oinarri hartuta egituratuko da III. Foru Planaren gaineko jarraipena. Horrexegatik, MIDENET tresnarekin bilduko da III. Foru Planaren gauzatzeari buruzko informazioa. Gainera, bide horretatik lortutako

datuak osatu egin ahal izango dira, hala behar duenean, behaketaren eta laneko saio bateratuen bidez lortutako informazio kualitatiboagoarekin.

Ekintzaren ardura duen zuzendaritzak egingo du Planaren gauzatzearen gaineko jarraipena. Horretarako, urtearen erdialdera (ekainean) lehenengo neurketa bat egingo da Midenet bidez egoeraren berri izateko eta, hala badagokio eta beharrezkoa baldin bada, urteko programazioan egin beharreko doikuntzak egiteko. Neurketa horrek era berean aukera emango du EBA aplikazioan hurrengo urteko plangintza doitzeko.

Gainera, urte amaieran egingo da III. Foru Planaren gauzatzearen azken neurketa, era berean Midenet aplikazioaren bidez. Hala bada, gauzatze ondorengo urteko lehen hiruhilekoan lortu ahal izango da amaitu den urteko programazioaren garapen eta gauzatze mailari buruzko informazio globala.

Planaren indarraldia amaitu eta gero, jasotako urteko informazio guztia batera hartuta erabiliko da, beste teknika batzuekin batera, planaren ebaluazio orokorra egiteko.

► EBALUAZIOA

Aplikagarria behar du izan ebaluazioak, eta erabilgarria etorkizuneko ekintzak antolatzeko. Horretarako, estrategiak epe ertainean eta luzean diseinatzeko informazio garrantzitsua eman behar du.

Atzeraelikatze zikloari dagokionez, prozesuaren azken neurketa ez ezik, hurrengo Plan Estrategikoa abiarazteko premiari buruzko erabakiak hartzeko abiapuntua ere bada ebaluazioa.

Zer ebaluazio mota behar duen zehazteko, lehenik ebaluazio horretatik zer informazio mota jaso nahi den finkatu behar da, zehazki, zer jakin nahi den behin III. Foru Planaren indarraldia amaitzen denean eta zein irizpidetan oinarritu behar den planak emaitza positiboak eta gogobetetzeko modukoak eman dituela erabakitzeke. Jarraian, eta adibide gisa, laburbilduta biltzen dira eskuarki erabili ohi diren ebaluazio irizpideak eta horien bidez erantzun beharreko galderak:

- ➔ Estaldura edo kalitate maila: Zer erlazio izan zen herritar onuradunen eta eskaera egileen artean? Aurreikusitako herritar guztiengana iritsi zen? Emaitza positiboak ematen al ditu ekintzen kalitatezko estandarren aplikazioak?
- ➔ Eraginkortasuna/koherentzia: helburuak lortu ahal izan ziren planifikatutako ekintzekin eta aurreikusitako baliabideekin eta iraupenekin? Bideragarritasuna antolakuntza, teknika, ekonomia eta denbora arloetan. Ongi txertatu al zen plana antolakuntzaren kulturari? Prest al zegoen antolakuntza plana garatzeko? Plana ezartzeko nahikoa izan al zen aurrekontua? Aurreikusitako denboran gauzatu ahal izan zen plana?
- ➔ Eragina: Aurrerapausoak egin al dira desberdintasunen murrizketan? Politiken helburuetako bat aldatu da? Aurrera egin al da genero mainstreaming-aren strategiaren ezarpenean? Hautematen al dira eraldaketak jarduteko eran? Ba al dute ondorio positiborik eraldaketa horiek berdintasunaren lorpenean?
- ➔ Iraunkortasuna: Denboran irauteko eta beste aldaketa batzuk sorrarazteko aukera al dute identifikatutako aldaketek?

Adierazle sistema

Planean aurreikusitako ebaluazio adierazleek (gauzatzea + emaitza + eragina) ahalbidetuko dute alde batetik plangintzaren betetze maila neurtzea, eta bestetik plana bere osotasunean balioestea. Hortaz, oso baliagarriak izango dira erabakiak hartzeko. Gainera, beste hauei buruzko informazioa eskainiko dute:

- Plana ezartzeko eta gauzatzeko prozesuari buruzko informazioa, plana abiarazterakoan topatutako zailtasunei eta aplikatutako soluzioei, urteko programazioak moldatzeko eta malgutzeko gaitasunari, egituren eta mugimendu feministaren eta emakumeen elkarten parte hartzeari eta inplikazioari, aldaketen aurreko erresistentziei, politika publikoetan ikuspegi feminista txertatzeari eta beste kontu batzuei buruzko informazio kualitatiboagoarekin.
- Lortutako emaitzei eta eraginari buruzko informazioa, planean planteatutako helburuen betetze maila eta abiapuntuko desberdintasunetan izandako eragina ezagutzeko aukera emango duena. Informazio horrekin, era berean, GFAk erakunde gisa berdintasun politikak garatzeko duen aurrerapen eta eskumen maila balioetsiko da, planaren garapenean inplikaturako eragileek emaitzen aurrean duten pertzepzioaren berri jasoko da, etab.

Adierazle motari dagokionez:

- Planaren helburu estrategikoen eta haiekin lotuta dauden genero Indizean jasotako adierazleen artean erlazio bat ezarrita itxuratuko dira **inpaktu** edo eragin adierazleak. Horretarako, helburu estrategikoei lotuta daude adierazleak (zenbakiz mugatuak eta izaera estrategikokoak), eta Genero Berdintasunaren Indizean (GBI) Gipuzkoari begira jasota dagoen informazioarekin lerratuko dira.
- **Emaitzen** adierazleak planaren gauzatzea amaitu eta berehala neurtutako emaitzen batura izango dira. Planaren helburu operatiboek lotuko zaizkie adierazle horiek.
- **Gauzatze** mailaren adierazleak (kopuruz gutxi dira, baina nahikoak ebaluatzeko) Planaren ekintza bakoitzari begira finkatu dira, eta aukera emango dute planaren urteko jarraipen etengabea egiteko. Dokumentu honetan daude jasota adierazle horiek.

5.3. AURREKONTUA

Kontuan izanik plana Covid-19aren osteko testuinguruan inplementatuko dela, urtero zehaztuko da haren aurrekontua Planean proposatzen diren epeak aintzat hartuta. Eta aurrekontu hori GFAk dauzkan aurrekontuak planifikatzeko tresnetan (EBA) landuko da.

ERANSKINA



ERANSKINA: III. FORU PLANAREN GAUZATZEAREN ADIERAZLEAK

GOBERNU ONA	
GO.HE. 1 BERDINTASUN ARLOAN ERREFERENTZIAZKO ARAUDIAREN GARAPENA SUSTATZEA GFARENTZAT.	
Go.HO. 1.1. GFarentzat berdintasun arloan erreferentziazkoa den araudiaren ezarpenaren gaineko jarraipen lana egitea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.1.1.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren ebaluazioa egitea.	Go.A.1. Eginda dago ebaluazioa
Go.1.1.2. GFak bideratutako berdintasun politika emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea aldatzeko Legean finkatutakoarekin bat datorren aztertzea, Lege hori indarrean jartzeak erakundeari dakartzkion aldaketak identifikatu ahal izateko.	Go.A.2. Identifikatutako aldaketa kopurua eta motak
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go1.2.1. Berdintasun arloan erreferentziazko arau esparrua garatzen duten xedapen, jarraibide eta estrategiak onartzea: politiken plangintza, genero inpaktuaren aurretiazko ebaluazio prozedura, hurrengo legegintzalditik aurrera kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasun klausulak txertatzeko jarraibideak eta GFako langileak trebatzeko estrategia.	Go.A.3. Aurreikusitako eta onartutako xedapenak, jarraibideak eta estrategiak
Go.1.2.2. Mekanismoak egokitzea (izendapenak, lan denborak, etab.) onartutako xedapenak, jarraibideak eta estrategiak garatu ahal izateko.	Go.A.4. Sartutako hobekuntza kopurua eta motak
Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorrira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFak bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	Go.A.5. Aurrekontuaren urteko handitzearen/txikitzearen portzentajea

GO.HE. 2. GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKA PUBLIKOEN PLANGINTZA HOBETZEA.	
Go.H0.2.1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren berdintasunerako plangintza hobetzen jarraitzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.2.1.1. EBA eta Midenet plangintza orokorreko tresnak berdintasunaren arloko foru politika planifikatzeko eta jarraipena egiteko beharizanetara egokitzea.	Go.A.6. EBA eta Midenet identifikatutako premietara egokitzea
Go.2.1.2. Plangintzaren fase guztietan genero ikuspegia txertatzeko irizpideen eta orientabideen ekarpena egitea.	Go.A.7. Irizpide motak eta ekarritako orientazioak
Go.H0.2.2. Gipuzkoako udalerrietan eta mankomunitateetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako planaren garapena sustatzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.2.2.1 Laguntza ematea udalei eta mankomunitateei emakumeen eta gizonen berdintasunerako esparruan bideratu beharreko proiektu estrategikoak planifikatzeko eta garatzeko.	Go.A.8. Babestutako proiektu estrategikoen kopurua
	Go.A.9. Laguntza jaso duten udal eta mankomunitateen kopurua
Go.2.2.2. Mankomunitateei eta udalei aholkuak ematea euren berdintasunerako berariazko politikak hobetzeko eta arloetako politketan eta prozedura administratiboetan genero ikuspegia txertatzeko.	Go.A.10. Aholkularitza jaso duten udal eta mankomunitateen kopurua
Go.2.2.3. Gipuzkoako 10.000 biztanletik beherako udalerrietan, berdintasun arloa ez dutenetan, berdintasunerako politika abian jartzeko laguntza ematea (Berdinbidean).	Go.A.11. Laguntza jaso duten 10.000 biztanletik beherako udalerrien portzentajea

GO. HE. 3. GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOKO BERDINTASUNERAKO EGITURAK SORTZEA ETA INDARTZEA.	
Go.H0.3.1. GFAko emakumeen eta gizonen berdintasuna berdintasun arloko araudia betetzeari eta dagozkien eskumenen garapenari.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.3.1.1. Berdintasunerako Organoaren beharrianen azterketa bat egitea egungo arau esparruak esleitzen dizkion eskumenei dagokienez.	Go.A.12. Hautemandako premia kopurua eta motak
Go.3.1.2. Berdintasunerako Organoko langile hornidura identifikatutako beharrianetara egokitzea eta finkatzea.	Go.A.13. Jasotako neurri kopurua eta motak
Go.H0.3.2. GFAaren genero arkitekturaren garapenean aurrerapausoak egitea Berdintasunerako Organoak sustatutako berdintasun politika.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.3.2.1. GFAko Departamentuetan jada sortutako berdintasunerako administrazio unitateak finkatzea.	Go.A.14. Finkatutako unitate kopurua.
Go.3.2.2. Dagoeneko sortuak diren berdintasunerako administrazio unitateen esperientziatik abiatuta, departamentuei beren berdintasun unitateak progresiboki sortzea ahalbidetuko dien estrategia lantzea.	Go.A.15. Landutako estrategia
Go.H0.3.3. Udalei eta mankomunitateei berdintasunerako organoak edo unitateak sortu eta finkatu ditzaten laguntzeko estrategia garatzea, lurralde oreka sustatuz eta Gipuzkoako udalerrri txikiaren errealitatea kontuan hartuz.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.3.3.1. Udaletan eta mankomunitateetan berdintasunerako egiturak bultzatzea.	Go.A.16. Garatutako sustapen neurrien kopurua eta motak
Go.3.3.2. Gipuzkoako udalerrietako berdintasunerako teknikariekin lan egiteko eremu teknikoa finkatzea, esperientziak eta praktika onak batera indartzeko eta transferitzeko, lurralde mailan eta Berdintasunarekin egiten duen lanarekin bat etorriz.	Go.1.17. Laneko teknikariek izandako lan saioen kopurua
	Go.A.18. Sarean parte hartzen duten berdintasun alorreko teknikariak dauzkaten udalen eta mankomunitateen portzentajea

GO HE. 4. GFAKO LANGILEEN ESKUMEN PROFILA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN PRINTZPIOAREN APLIKAZIO PRAKTIKOAREKIN LERROKATZEA.	
Go.H0.4.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei zuzendurik, oinarrizko trebakuntza, espezifikoa eta espezializatua bermatzeko bide bat inplementatzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.4.1.1. Legegintzaldiko estrategia diseinatzea berdintasun arloan oinarrizko formakuntza Plana inplementatzeko.	Go.A.19. Diseinatutako estrategia
Go.4.1.2. Emakumeen eta gizonen berdintasun arloan GFAko langile guztiak trebatzea (oinarrizko formakuntza).	Go.A.20. Egindako formakuntza ekintzen kopurua / Parte hartzaileen kopurua ekintzako eta sexua bereizirik
Go.4.1.3. GFAko teknikariak trebatzea arloetako politiketan eta administrazio prozedura arruntetan genero ikuspegia progresiboki inplementatu ahal izan dezaten (formakuntza espezifikoa).	Go.A.21. Egindako formakuntza ekintzen kopurua / Parte hartzaileen kopurua ekintzako eta sexua bereizirik
Go.4.1.4. Trebatzeko bidearen ezarpenaren gaineko ebaluazioa, GFAko langileen trebakuntzan izandako inpaktuaren berri izateko.	Go.A.22. Egindako ebaluazioa
Go.H0.4.2. GFAko berdintasunerako departamentu unitateei GFAko langileei beren arloko jardueran emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren zeharkakotasunean laguntzea eta aholkatzea ahalbidetuko dien eskumenez hornitzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.4.2.1. Berdintasunerako Organoari eta berdintasunerako departamentu Unitateei zuzendutako formakuntza-ekintza prozesu bat artikulatzea, GFAko langileei aholkuak emateko erreferente espezializatuak izan daitezten.	Go.A.23. Emandako formakuntza orduak
Go.4.2.2. Berdintasun Unitateekin mentorizazio esperientzia bat egitea programa edo departamentu proiektuetan genero ikuspegiaren zeharkakotasuna planifikatzeko eta praktikan jartzeko.	Go.A.24. Egindako esperientzia / Genero ikuspegiaren zeharkakotasuna jaso duten departamentu proiektuen kopurua
GO. HE. 5. GFAKO LAN PROZEDURETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO AURRERAPAUOAK EGITEN JARRAITZEA.	

Go.H0.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.5.1.1. Formularioetan, eskaera orrietan, administrazio erregistroetan eta GFAko pertsonen zerikusia duten datu baseetan sexu aldagaia aintzat hartzen den ala ez jakiteko diagnostikoa egitea, eta aintzat hartzen ez bada, aipatutako aldagaia aintzat hartzea.	Go.A.25. Egindako diagnostikoa
Go.5.1.2. Sexuaren arabera bereizitako datuekin egiten den tratamenduaren azterketa egitea, GFarentzako proiektu eta programa estrategikoen diseinuan, aplikazioan, jarraipenean eta ebaluzioan duen inpaktuaren berri izateko.	Go.A.26. Egindako azterketa
Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.	Go.A.27. Datuak sexuaren eta genero adierazleen arabera bereizirik jasotzen dituzten azterlan, plan, txosten eta dokumentu kopurua
Go.H0.5.2. GFAko departamentuen esperientziatik abiatuta, araudiaren genero inpaktuaren aurretiazko ebaluzio txostenak lantzeko prozedura berraztertzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.5.2.1. Araudian genero inpaktuaren aurretiazko ebaluzio txostenen eta arloetako txostenen lanketan esku hartzen duten departamentuekin hausnarketa-ekintza prozesu bat bideratzea aipatutako txostenak berraztertzeko eta horiei zabalkundea emateko.	Go.A.28. Egindako berrikuspen eta hedapen ekintza mota / Parte hartzaileen kopurua departamentuaren eta sexuaren arabera
Go.5.2.2. Ogasun Departamentuarekin berriazko lan gune bat sortzea hobekuntza bideragarriak eta beharizan espezifikoak identifikatzeko genero inpaktuaren aurretiazko txostenak eta araudia lantzean.	Go.A.29. Sortutako gunea
Go. H0.5.3. GFAk zuzenean egiten dituen edo hirugarren pertsonen edo entitateen bidez GFarentzat egiten diren dokumentuetan eta euskarrietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboaren erabileran sakontzen jarraitzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.5.3.1. Foru Aldundiaren intranetean gune bat eta adierazle sorta bat sortzea, GFAko langileek dokumentuetan hizkuntza ez sexistaren erabilerari buruz izan ditzaketan zalantzak argitzeko.	Go.A.30. Aldundiko intranetean sortutako gunea / Sortutako adierazle kopurua eta motak

Go.5.3.2. Hizkuntzaren erabilerari eta Funtzio Publikoak programatutako formakuntza ikastaroetako edukiei eta irudiei buruzko auditoretza lanak egitea berdintasun printzipioa txertatu dezaten eta ez ditzaten genero estereotipoak birsortu.	Go.A.31. Egindako auditoretza lan kopurua
Go.H0.5.4. GFaren kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasun klausulak sistematikoki txertatzen jarraitzea eta haien gaineko jarraipena egitea, eraldatzeko duten ahalmena aztertuz (kalitatea eta eragina).	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.5.4.1. Arau esparru berria oinarritzat harturik, kontratuetan, hitzarmenetan eta dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzeko foru jarraibideen azterketa eta eguneraketa egitea.	Go.A.32. Jasotako hobekuntza kopurua
Go.5.4.2. Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan jasotako berdintasun klausulak betetzen diren eta hirugarren entitateek betetzen dituzten jakiteko ebaluazio eta jarraipen lanak egiteko metodologia lantzea.	Go.A.33. Landutako metodologia
Go.H0.5.5. Lan metodologiaren hobekuntzan aurrera egiten jarraitzea GFaren aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.5.5.1. Foru Aldundiko teknikarien eta genero ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontu gaietan adituak direnen arteko topaketak egitea gaur egun dauden metodologiei buruzko ezagutzak handitzeko.	Go.A.34. Topaketa kopurua / Topaketetan parte hartu duten zuzendaritzen portzentajea
Go.5.5.2. Genero ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontuak lantzeko metodologia eguneratzea.	Go.A.35. Metodologia eguneratua

GO.HE.6. GFAN ETA GIPUZKOAKO UDAL, TALDE FEMINISTA ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUMEEN ELKARTEEKIKO HARREMANETAN GOBERNANTZA IREKI ETA KOOPERATIBOKO EREDU BAT SUSTATZEA.**Go.HO.6.1. Berdintasun arloan barne (departamentu barnekoa eta artekoa) eta kanpo (erakunde artekoa) lankidetza indartzea.**

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.6.6.1. Administrazioaren hiru esparruek (erkidego, foru eta udal mailakoak) parte hartzen duten berdintasunerako erakundeen koordinazio guneetan parte hartze aktiboa izatea.	Go.A.36. Esparruka parte hartu den gune kopurua eta motak
Go.6.1.2. Berdintasun arloan eta Pirinio Atlantikoak Departamenduarekin elkarlanean mugaz gaindiko ekimenak abiaraztea.	Go.A.37. Abiarazitako ekimen kopurua
Go.6.1.3. Esparru guztietan (erkidego, estatu, komunitate eta nazioarte mailan) eta berdintasun arloan burutzen diren ekimenen gaineko jarraipena egitea eta interesgarriztat hartzen diren horietan parte hartzea.	Go.A.38. Parte hartzen den intereseko ekimen kopurua eta motak, esparruka

Go.HO.6.2. GFAn mugimendu feministarekin eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteekin solastatzeko gune egonkorak sortzea eta ikusaraztea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.6.2.1. GUNEA on-line plataforma indartzea, emakumeen eta gizonen berdintasun arloan GFak parte hartzeko eta solastatzeko gune gisa.	Go.A.39. Burura eramandako ekintza indargarrien kopurua eta motak
Go.6.2.2. Elkarte feminista eta emakumeen elkarten artean dauden sareak GFako Berdintasunerako Organorekin solastatzeko guneak sustatzea.	Go.A.40. Sustatutako gune mota
	Go.A.41. Parte hartutako elkarte kopurua
Go.6.2.3. Berdintasunerako Organoak sortutako on-line informazioaren irisgarritasuna hobetzea, gardentasuna eta kontu emateak bermatzeko.	Go.A.42. Irisgarritasuna hobetzeko jaso den ekintza kopurua eta motak

Go.H0.6.3. Berdintasunerako foru politikaren ardatza gardentasunaren eta kontu emateen printzipioak izatea ahalbidetzea, publizitate aktiboa eta herritarrentzako informazio irisgarria bezalako mekanismoen bidez.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Go.6.3.1. Barne eta kanpo komunikazio estrategia bat diseinatzea eta inplementatzea herritarrei berdintasun politikaren xedeei eta emaitzei buruzkoak jakinarazteko.	Go:A.43. Diseinatutako estrategia / Txertatutako komunikazio ekintzen kopurua eta motak
Go.6.3.2. Foruaren web orrian, Igualdad-Berdintasuna eremuan, herritarrak Berdintasunerako Organoarekin komunikatzeko atal bat sortzea, herritarrek berdintasun alorreko informazioa eskatu, kexak azaldu eta iradokizunak egin ahal izan ditzaitez.	Go.A.44. Web orrian sortutako atala

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

EA.HE.7. EMAKUMEEN ETA FEMINISMOAREN EKARPENAK ETA JAKINTZAK AITORTZEA “GIPUZKOA EREDUA” GARATZEKO.

Ea.H0.7.1. Aintzat hartzea eta ageriko egitea emakumeen eta feminismoaren ekarpenak berdintasuneranzko gizarte eraldaketan.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ea.7.1.1. Gipuzkoako emakumeen elkarteek eta elkarte feministek Covid-19ri emandako erantzunean izan duten rola eta pandemiak euren programazioan eta baliabideetan eragindako egoeraren inpaktua ezagutzea ahalbidetzen duen azterketa bat lantzea.	Ah.A.45. Egindako azterketa
Ea.7.1.2. Berdintasuneranzko eraldaketa soziala bultzatzen duten emakumeen elkarteetan erabilgarri dauden zerbitzuen eta baliabideen mapa bat lantzea.	Ah.A.46. Landutako zerbitzuen eta baliabideen mapa

Ea.H0.7.2. Gizartea jabearaztea eta sentsibilizatzea emakumeen parte hartzea nagusi den guneen eta lanen ongizate kolektibo eta sozialaren garrantziaz.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ea.7.2.1. Ibilbide geografiko bat diseinatzea, non proposamen turistikoen bidez (ikustaldiak, ibilbideak, erakusketak eta abar) emakumeek Gipuzkoako giza garapen jasangarriri egindako ekarpenak ageriko egiten diren.	Ah.A.47. Diseinatutako ibilbide geografikoa, emakumeek Gipuzkoako giza garapen iraunkorrari egindako ekarpenak ikusaraztekoa
Ea.7.2.2. Diktaturaz geroztik giza eskubideak lortzen eta finkatzen lagundu duten gipuzkoar emakumeen historiak eta ibilbideak ikertzeko eta jasotzeko azterlana egitea, kultura demokratiko integratzaileagoa bultzatzeko.	Ah.A.48. Ikerketan identifikatutako gipuzkoar emakumeen historia eta bizi ibilbideen kopurua
EA.HE.8. GIPUZKOAKO EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA INDARTZEA.	
Ea.H0.8.1. Emakumeen elkarteen, emakumeen etxeen eta ahalduntzeko eskolen lana indartzea, emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa garatzeko tresna gisa.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ea.8.1.1. Emakumeen elkarteei eta talde feministei ematen zaizkien baliabideak progresiboki egokitzea langile propioak kontratatu ahal izan ditzaten eta Gipuzkoako gizartearentzat interes orokorrekoak diren proiektuak burura eraman ahal izan ditzaten.	Ah.A.49. Baliabideen zuzkidura pixkanaka emakumeen elkarteei eta talde feministei egokitzeko xedean jasotako hobekuntza motak
Ea.8.1.2. Emakumeen Etxeen lurralde mailako eredu propio bat garatzea (eginkizunak eta helburuak, lurralde aniztasuna, GFArekiko harremana, aurrekontua, etab.).	Ah.A.50. Lurraldearen eredu propioaren araberako Emakumeen Etxea diseinatzeko xedean garatutako ekintza mota
	Ah.A.51. Lurraldearen eredu propioaren araberako Emakumeen Etxeak (2023)
Ea.8.1.1. Emakumeen elkarteei eta talde feministei ematen zaizkien baliabideak progresiboki egokitzea langile propioak kontratatu ahal izan ditzaten eta Gipuzkoako gizartearentzat interes orokorrekoak diren proiektuak burura eraman ahal izan ditzaten.	Ah.A.52. Proiektuak formulatzeko laguntza jaso duten elkarteen kopurua
Ea.H0.8.2 GFaren genero zeharkakotasunaren estrategiaren bidez, emakumeen ahalduntzea sustatzea.	

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ea.8.2.1. GFak kirol federazioei eta klubei kirol esparru guztietan eta lehiaketa maila guztietan emakumeek eta neskek parte hartzeagatik emandako dirulaguntzen eraginaren azterketa egitea.	Ah.1.53. Egindako azterketa, emakumeek eta neskek kirol esparru guztietan izandako parte hartzeari buruzkoa
Ea.8.2.2. Kirol klubetan eta federazioetan parte hartzen duten emakumeentzako ahalduztze esperientzia pilotu bat garatzea. Ea.8.2.3. GGKE eta lurraldeko emakumeen arteko aliantzak sortzea, ezagutzak eta esperientziak elkar trukatu.	Ah.A.54. Esperientzia pilotua abiaraztea Ah.A.55. Esperientzia pilotuan parte hartutako emakume kopurua
Ea.8.2.4. Neska nerabeen ahalduztzea sustatzea GFak sustatutako haur, nerabe eta gazteentzako programen eta guneen esparruan.	Ah.A.56. GGKEen eta emakumeen elkarten artean aliantzak egiteko xedean abiarazitako ekimen motak
Ea.8.2.5. Kultura, jarduera ekonomiko, kirol edo beste esparru batzuetako mugimendu eta elkarteetako erantzukizun eta ordezkaritza karguetan ari diren emakumeen parte hartzea sustatzea eta ikusaraztea	Ah.A.57. Ahalduztzeko ekintzak jasotzen dituzten programa eta gune kopurua eta motak.
Ea.8.2.1. GFak kirol federazioei eta klubei kirol esparru guztietan eta lehiaketa maila guztietan emakumeek eta neskek parte hartzeagatik emandako dirulaguntzen eraginaren azterketa egitea.	Ah.A.58. Ikusarazteko ekimen kopurua eta motak, esparruka
EA.HE. 9. GIPUZKOAKO EMAKUMEEN AHALDUZTZE SOZIALA ETA POLITIKOA INDARTZEA	
Ea.HO.9.1. Gipuzkoako emakumeen elkarten eta talde feministen eragin sozial eta politiko handiagoa ahalbidetzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ea.9.1.1. Mugimendu feminista eta emakumeen elkarteak trebatzea berdintasunaren arloko foru politiken definizioan, egikaritzean eta ebaluazioan parte har dezaten.	Ah.A.59. Mugimendu feminista eta emakumeen mugimendua gaitzeko xedean abiarazitako ekintza kopurua eta motak Ah.A.60. Gaitzeko ekintzetan parte hartutako elkarte kopurua eta motak
Ea.9.1.2. Foru politikan emakumeek parte hartzeko Gunea finkatzea.	Ah.A.61. Foru politikan emakumeek parte hartzeko Gunea finkatzeko xedean garaturako ekimen motak

Ea.9.1.3. Herritarren Partaidetzari buruzko 5/2018 Foru Arauan aurreikusitako parte hartzeko eta partaidetza ebaluatzeko tresnetan mugimendu feministek eta emakumeen elkarteek parte hartzeko baldintzak sorraraztea.	Ah.A.62. Garatutako ekimen motak
Ea.H0.9.2. Emakumeen protagonismoa sustatzea kultur ekitaldi eta proposamen guztietan (artistikoak, jai girokoak, oroitzapenezkoak, kirol arlokoak eta euskararen hizkuntza normalizazioaren esparruan egiten direnak).	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ea.9.2.1. Ekintza positiboko neurriak abiaraztea emakumeen parte hartzea eta erabaki hartzeak emendatzeko nola jai guneetan hala arte, literatura eta ikus-entzunezkoen ekoizpenean.	Ah.A.63. Emakumeen parte hartzea emendatzeko xedean zuzendaritza arduradun bakoitzak abiarazitako ekintza positiboko neurri kopurua eta motak
Ea.9.2.2. Emakume eta neskez osatutako kirol taldeen aitortza soziala sustatzea.	Ah.A.64. Kirol taldeak gizarte mailan aitortuagoak izateko xedean garatutako ekintza kopurua eta motak
Ea.9.2.3. Mugimendu feministari eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteei laguntza ematea emakumeen giza eskubideak ageriko egiteko erabiltzen dituzten ekintza artistikoetan.	Ah.A.65. Burura eramandako ekintza indargarrien kopurua eta motak
Ea.H0.9.3. Emakumeen presentzia handitzea gizarte eta politika arloko ordezkartza eta/edo postu publikoetan.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ea.9.3.1. GFaren aitortza publikoko sari, lehiaketa eta beste ekitaldi guztietan emakumeen presentzia handitzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.	Ah.A.66. GFaren jendaurreko aitortza ekitaldietan emakumeen presentzia handitzeko xedean egindako ekintza kopurua eta motak
Ea.9.3.2. Ordezkaritza eta erabakitze postuetan emakumeen arteko sinergiak sustatuko dituzten ekimenak bultzatzea, kontuan izanik lurraldeko emakumeen aniztasuna.	Ah.A.67. Ordezkaritza eta erabakiak hartzeko postuetan emakumeen arteko sinergiak bultzatzeko xedean sustaturiko ekimen kopurua eta motak

Ea.9.3.3. Zuzendaritza-postuetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua duten edo modu aktiboan sustatzen ari diren erakundeak ikusarazteko laguntza ematea.	Ah.A.68. Zuzendaritza postuetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua duten edo sustatzen duten erakundeak ikusarazten laguntzeko xedean bideratutako ekintza kopurua eta motak
--	--

EKONOMIA ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA BERDINTASUNA BERMATZEKO

EK.HE.10. BERDINTASUNAREN AITORTZA SOZIALA INDARTZEA GIZA GARAPEN IRAUNKORRAREN ZATI DEN ALDETIK.

Ek.HO.10.1. Berdintasunak ekonomia eta gizarte eraldaketan duen balioaz herritarrak sentsibilizatzea.

EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ea.10.1.1. Herritarrak sentsibilizatzea genero desberdintasunek bizitzaren esparru guztietan nola eragiten duten jabeazteko.	Ek.A.69. Burura eramandako sentsibilizazio ekintzen kopurua eta motak
Ek.10.1.2. Lan bateratua egitea lurraldeko eta tokiko hedabideekin lurraldeko aurrerabide sozial, kultural eta ekonomikoarekin zerikusia duten edukietan berdintasuna aintzat hartuko dela bermatzeko.	Ek.A.70. Kolaboratzaile diren hedabide kopurua, esparruka
Ek.10.1.3. Covid-19k sorrarazitako krisialdi globalak (krisialdi ekonomikoa, soziala, sanitarioa eta segurtasun arlokoa) emakumeengan eta gizonengan, bereiz hartuta, eragindako inpaktuari buruzko azterlan bat egitea.	Ek.A.71. Egindako azterlana
Ek.10.1.4. Ekonomia sozial eta solidarioan oinarritutako garapen iraunkorren eta berdintasunezkoen esperientziak ezagutaraztea.	Ek.A.72. Hedatutako esperientzia kopurua

Ek.HO.10.2. Bizitzaren esparru guztietan emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien rol eta estereotipoen hausturan aurrera egitea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ek.10.2.1. Haur eta gazteentzako foru zerbitzuetan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko eduki eta jarduerak sartzea.	Ek.A.73. Bildutako eduki eta jarduera kopurua eta motak
Ek.10.2.2. Gipuzkoako gizartean hautematen diren aldaketak, mendekotasun eredu hegemonikoei aurre egiten dietenak, ageriko egiteko eta sustatzeko jarduerak programatzea (film laburren eta bideoen lehiaketak, irratsaioak, publizitate iragarkiak, publizitate instituzionala, etab.).	Ek.A.74. Programatutako ekintza kopurua eta motak
EK. HE.11. GFAREN ETA GIPUZKOAKO ERAKUNDE ETA ENPRESEN ERALDAKETA PROZESUETAN BERDINTASUNAREN TXERTAKETA SUSTATZEA.	
Ek.HO.11.1. Enpresei eta erakundeei laguntzea berdintasuna txertatu dezaten beren kulturen, estrategien eta kudeaketa eremuan.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ek.11.1.1. Legeak berdintasunerako plan bat edukitzea behartzen ez dituen enpresei berdintasunerako neurriak ezartzen eta kontziliazioa ahalbidetzen laguntzea, zaintza lanetan gizonen erantzukidetasuna sustatzeko.	Ek.A.75. Laguntza jaso duten enpresa kopurua
Ek.11.1.2. Lurraldean berdintasuna eta kontziliazio erantzukidea lortzeko neurrien ezarpenaren diseinuan lan egiten ari diren gipuzkoar enpresen artean ezagutzak, aitortzak eta agerikotasuna trukatzeko topaketak egitea.	Ek.A.76. Burura eramandako ekintza kopurua eta motak
Ek.11.1.3. Gipuzkoako enpresetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan kopuruaren eta proportzioaren azterketa bat egitea, eta plan horien ezarpen mailaren eta eragindako inpaktuaren azterketa arlo ekonomikoen arabera.	Ek.A.77. Egindako analisisia
Ek.11.1.4. Esparru ekonomiko eta sozialeko eragileen artean berdintasun irizpideak kudeaketan txertatzeak dakartzak onurak ezagutaraztea.	Ek.A.78. Egindako zabalkunde ekintzen kopurua
Ek.11.1.5. Ordezkaritza txikia duten arloetan, nola industria sektorean hala lehenengo sektorean, emakumeak kontratatuzko pizgarriak finkatzea eta pizgarri horien eraginaren gaineko jarraipena egitea.	Ek.A.79. Finkatutako laguntzak sustatzeko estrategia kopurua

Ek.H0.11.2. GFAn eta Gipuzkoako erakundeetan eta enpresetan generoko soldata arrakala murrizten jarraitzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ek.11.2.1. Gipuzkoako enpresetan soldata-arrakalaren azterketa bultzatzea.	Ek.A.80. Burura eramandako sustapen ekintzen kopurua eta motak
Ek.11.2.2. Foru Aldundiko lanpostuen arrisku eta arriskugarritasun osagarriak zehazten dituzten irizpideen berrazterketa egitea genero ikuspegia aintzat harturik.	Ek.A.81. Berrikusitako irizpideak
Ek.11.2.3. Enpresei laguntzea genero ikuspegia aintzat hartzen duten lanpostuen balorazioak egiterakoan.	Ek.A.82. Laguntza jaso duten enpresa kopurua
Ek.H0.11.3. Lurraldean kontziliazio erantzukidea sustatzea	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ek.11.3.1. HerriLab proiektua garatzea Gipuzkoako udalerrri batean kontziliazio erantzukiderako esperientzia pilotu gisa.	Ek.A.83. Burura eramandako HerriLab proiektua
Ek.11.3.2. HerriLab proiektuaren esparruan egindako ikaskuntzak sistematizatzea baliozkoak izateko eta Gipuzkoako beste udalerrri batzuetan erabilgarri izateko.	Ek.A.84. Identifikatutako ikaskuntza transferigarrien kopurua eta motak
EK.HE.12. GIPUZKOAKO EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA BULTZATZEA KALITATEZKO ENPLEGUA SUSTATUZ	
Ek.H0.12.1. GFAk sustatutako proiektu ekonomiko estrategiko eta esperimentalen bidez emakumeentzako kalitatezko enpleguen sorrera bultzatzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ek.12.1.1 GFAk erabilitako sistemetan genero adierazleak txertatzea enpleguaren kalitatea neurtzeko.	Ek.A.85. Enpleguan kalitatea neurtzeko sistemetan jasotako genero adierazleen kopurua eta motak
Ek.12.1.2. GFAk sustaturiko ekintzailatza eta autoenplegu programek emakumeengan eta gizonengan, bereiz hartuta, duten eragin desberdinaren azterketa egitea eta emakumeen autonomia ekonomikoa hobetzeko proposamenak lantzea.	Ek.A.86. Inpaktuari buruz egindako analisisia

Ek.12.1.3. Emakumeek Gipuzkoako lurraldean sortutako enpresei eusteko laguntza neurriak ezartzea.	Ek.A.87. Ezarritako laguntza neurrien kopurua
Ek.HO.12.2. Gipuzkoan txirotasunaren feminizazioa murrizten jarraitzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ek.12.2.1. Genero ikuspegia txertatzea Gipuzkoako txirotasunari eta gizarte bazterketari buruzko 4. Inkestan, Gipuzkoako emakumeek txirotasunarekiko bizi duten egoera espezifikoaz azterturik.	Ek.A.88. Jasotako hobekuntza motak txirotasunari eta gizarte bazterketari buruzko 4. Inkestan genero ikuspegia aintzat hartzeko
Ek.12.2.2. Elkar-rekin Lanean foru programaren esparruan, gizarte bazterketan bizi diren edo egoera horretan egoteko arriskua duten emakumeak gizarteratzeko bideak lantzea, kontuan izanik aurre egin beharreko generoko egiturazko desberdintasunak.	Ek.A.89. Landutako gizarteratze bideen kopurua
Ek.12.2.3. Lan-hautaketako enpresetan emakume migratzaileak diskriminatzeari buruzko analisia.	Ek.A.90. Egindako analisia
Ek.HO.12.3. Emakumeen presentzia sustatzea Zientzia eta Teknologia esparruan, bereziki postu arduratsuetan, egungo eta etorkizuneko eredu sozial eta ekonomikoa eraldatzen eta baldintzatzen ari diren gakoetako bat baita esparru hori.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ek.12.3.1. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal sarearen esparruan emakume zientzialarien ahalduztzea sustatuko duten esperientzia pilotu bat sustatzea.	Ek.A.91. Egindako esperientzia pilotua
Ek.12.3.2. Emakumeak, eta bereziki emakume gazteak, mundu teknologikora hurbiltzea bultzatuko duten neurriak sustatzea.	Ek.A.92. Sustatutako neurri kopurua eta motak
Ek.12.3.3. Zientzia eta teknologia esparruan postu garrantzitsuetan ari diren emakumeen identifikazioa sustatzea eta nazioarte mailako jardunbide egokien azterketa egitea emakume zientzialariak lanpostu arduratsuetara bil daitezten.	Ek.A.93. Zientzia eta teknologia esparruan identifikatutako emakume esanguratsuen kopurua
	Ek.A.94. Aztertutako jardunbide egokien kopurua

EK.HE.13. GFAREN KONPROMISOA EMENDATZEA ZAIINTZEN HORNIDURAN ETA KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEAN	
Ek.H0.13.1. Zaintza lanak aitortzea eta haiei balioa ematea ezinbestekoak direlako bizitzaren jasangarritasunari begira.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ek.13.1.1. Kultur eta aisialdiko programazio eta jardueretan zaintza lanen erantzukidetasunarekin eta bizitzari eta gizarteari eusteko duen garrantziarekin lotutako edukiak sartzea, eta zaintzaileen esku beren parte hartzea ahalbidetuko duten azpiegiturak eta baliabideak jartzea.	Ek.A.95. Zaintzaileen eskuragarri jarritako eta haiei zuzendutako azpiegitura eta baliabide motak, programen eta kultura eta aisia jardueren arabera
Ek.13.1.2. Zaintza lanak familiei eta emakumeei esleitzeko joeraren naturalizazioa urratuko duten ekimenak (kanpainak, jardunaldiak, publizitatea...) diseinatzea.	Ek.A.96. Diseinatutako ekimen kopurua eta motak
Ek.13.1.3. GFako laguntza baliabideetako zaintzaileen beharrian espezifikoei erantzungo dien autozaintzako programa bat diseinatzea, aintzat harturik erreferentziazko beste esperientzia batzuk.	Ek.A.97. Diseinatutako programa
Ek.13.1.4. GFak dauzkan tresnetan mendekotasunak dauzkaten pertsonen zaintza duinak bermatzeko eta zaintzaileentzat kalitatezko lan baldintzak bermatzeko tresnak sartzea.	Ek.A.98. Sartutako tresna kopurua eta motak
Ek.H0.13.2. Genero ikuspegia jasotzea GFak sustatzen duen mendekotasunaren eta desgaitasunaren arretako ereduan.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ek.13.2.1. Genero berdintasunerako politikek arreta eredu berrian (Gizarte Politiken Proiektu Gidari Estrategikoa, 2020-2023) duten eraginaren ebaluazioa egitea.	Ek.A.99. Egindako ebaluazioa
Ek.13.2.2. Foru baliabide eta zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresa esleipendunen langileek berdintasun alorrean oinarritzko prestakuntza edo prestakuntza espezializatua (arduren araberakoa) izateko neurriak sustatzea.	Ek.A.100. Sustatutako neurri kopurua eta motak

Ek.HO.13.3. Kontziliazio erantzukidea sustatzea GFAn eta GFAk kudeatzen dituen baliabideetan	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
Ek.13.3.1. Gizonek kontziliazioa gauzatzeko neurrien erabilera sustatzeko estrategia bat diseinatzea eta aplikatzea, betiere emakumeentzako kaltegarria ez bada edo desberdintasuna ekartzen ez badu.	Ek.A.101. Diseinatutako estrategia
Ek.13.3.2. Laneko arriskuak prebenitzeko ikastaroetan izaera psikosozialeko arriskuak aintzat hartzea, horien artean “lanaldi bikoitzaren” ondorioak (antsietatea, nekea, etab.) eta emakumeengan ondorio horiek prebenitzeko erantzukidetasunaren beharraren kontzientziazioa kontuan harturik.	Ek.A.102. Aipatutako edukiak aintzat hartzen dituzten ikastaroen kopurua
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK: <i>AURRE II</i>	
B.HE.14. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI BURUZKO IKERKETA, SENTSIBILIZAZIO, PREBENTZIO ETA FORMAKUNTZA ALORRETAN AURRERA EGITEA	
"I.HO.14.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko ikerketa eta informazioa biltzeko sistemak eta datuak komunikatzeko eta ezagutarazteko bideak hobetzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
I.14.1.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren gaiari eta ezaugarriei buruzko hausnarketa espezializatueterako guneak indartzea, kontuan izanik, besteak beste, Covid-19ren eragina.	I.A.103. Hausnarketak egiteko xedean abiarazitako gune kopurua
I.14.1.2. GFAk arreta emandako emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuei buruzko informazio homogenea biltzeko sistema diseinatzea.	I.A.104. Informazio homogenea biltzeko xedean diseinatutako sistema
I.14.1.3. Foru zerbitzuek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei emandako arretaren gaineko urteko jarraipen sistema hobetzea.	I.A.105. Urteko jarraipen sisteman sartutako hobekuntza motak
I.14.1.4. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari emandako arretaren emaitzak sistematikoki jasotzea eta aldizka ezagutaraztea GFAREN programa, baliabide eta zerbitzuetatik.	I.A.106. Erabilitako mekanismoak, arretaren emaitzen bilketa sistematikoa dela eta aldizka zabaltzen dela egiaztatzen dutenak
I.14.1.5. Gipuzkoan sexualki eta laboralki esplotatzeko emakume eta nesken Salerosketaren errealitateari buruzko txosten bat egitea.	I.A.107. Egindako txostena

I.HO.14.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari nola heltzen zaion hobeto ezagutzea, indarkeria egoera horiek berariaz erantzuten ez dituzten foru zerbitzu eta baliabideetatik.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
V.14.2.1. Indarkeria matxista sexualak haurtzaroan dauzkan ezaugarri buruzko ikerketa egitea, foru baliabideek eta zerbitzuek indarkeria mota horri aurre egin ahal izateko behar dituzten baliabideetan sakonduz.	I.A.108. Egindako ikerketa
V.14.2.2. Pertsona adintsuentzako eta/edo desgaitasunak dauzkaten pertsonentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan indarkeria matxista prebenitzeko eta tratatzeko protokoloa lantzea eta ezagutaraztea.	I.A.109. Egindako protokoloa / Zabalkundea bermatzeko xedean egindako ekintza motak
V.14.2.3. Haurtzaroan eta nerabezaroan sexu-indarkeria matxista prebenitzeko eta detektatzeko tresnak sortzea, bai espazio komunetan, bai espazio espezifikioetan, hala nola kirol- eta aisialdi-espazioetan.	I.A.110. Sortutako tresna kopurua eta motak, guneka
I.HO.14.3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arbuio soziala handitzea, indarkeria mota hori eragiten duten generoko desberdintasunak daudela ulertuta.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
I.14.3.1. Fokua emakumeen eta gizonen desberdintasunen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arteko loturan jartzen duten sensibilizazio ekintzak indartzea.	I.A.111. Burura eramandako ekintza indargarrien kopurua eta motak
I.14.3.2. Egindako kalteari erantzun publikoa emateko eta erreparazio kolektiboa gauzatzeko eskubidea sustatzea, indarkeria matxista jasaten duten emakumeak berriz ere biktima izan daitezen saihesturik.	I.A.112. Erantzun publikoak abiarazitako ekintza motak egindako kalteagatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea sustatzeko xedean
I.14.3.3. EAEko gazteen artean indarkeria matxistari aurrea hartzeko Beldur Barik erakunde arteko programan parte hartzea.	I.A.113. Partaidetza Beldur Barik programan
I.14.3.4. Ikus-entzunezko materialak diseinatuta, Gipuzkoan indarkeriari aurrea hartzeko programa bat abiaraztea, gazteei zuzendua.	I.A.114. Programa abiarazteko xedean egindako ekintza motak (2020)
	I.A.115. Abian jarritako programa (2021)
I.14.3.1. Fokua emakumeen eta gizonen desberdintasunen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arteko loturan jartzen duten sensibilizazio ekintzak indartzea.	I.A.116. Abian jarritako ekintza motak

I.HO.14.4. GFaren zerbitzu eta baliabideetatik ahalbidetzea emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta espezializatua ematea	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
I.14.4.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko foru zerbitzu espezifikoetako langileei berdintasunaren arloko formakuntza espezializatua ematea.	I.A.117. Berdintasun gaian emandako formakuntza espezializatua I.A.118. Formakuntza amaitzen duten foru zerbitzuetako profesionalen kopurua, sexuaren arabera bereizirik
I.14.4.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko foru zerbitzu espezifikoetako langileei berdintasunaren arloko formakuntza espezializatua ematea.	I.A.119. Berdintasun gaian emandako formakuntza espezializatua I.A.120. Haurtzaroari eta nerabezaroari zuzendutako foru zerbitzuetako profesionalen kopurua, formakuntza amaitu dutenak, sexuaren arabera bereizirik
I.HE.15. GFAREN ARRETA EMATEKO EREDUA INDARKERIA MATXISTARI EGOKITZEA, ESPARRU GUZTIETATIK BIDERATUTAKO ESKU HARTZEAREN XEDEA EMAKUMEEN ETA NESKEN AHALDUNTZEA IZAN DADIN	
I.HO.15.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko foru zerbitzuen irismena eta kalitatea handitzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
I.15.1.1. Indarkeria matxistaren emakume biktimentzat arreta psikosozial eta soziojuridikoko zerbitzua diseinatzea eta abian jartzea.	I.A.121. Zerbitzua abiarazteko xedean egindako ekintzak I.A.122. Abian jarritako arreta psikosozial eta soziojuridiko zerbitzua
I.15.1.2. 2019an egindako ebaluazioaren emaitzak aintzat harturik, emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta espezifikoa emateko baliabideak eta zerbitzuak progresiboki egokitzea.	I.A.123. Ebaluazioaren emaitzak aintzat harturik, indarkeriari arreta espezifikoa emateko baliabideetan eta zerbitzuetan jaso diren hobekuntzen kopurua eta motak

I.HO.15.2. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko eredia beste foru baliabideetara, espezifiki indarkeriaren arlokoak ez direnara, zabaltzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
I.15.2.1. Indarkeria matxistaren arloko foru lan guneak egokitzea, gai horri erantzuteko zerbitzu guztiak lan gune horietan bil daitezzen, eta horrenbestez, biktinekiko arreta modu integralean eta koordinatuan bideratu ahal izan dadin.	I.A.124. Egokitu diren lan guneen kopurua eta motak
I.15.2.2. Hurrei eta nerabeei zuzendutako zerbitzuetatik, emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arreta hobetzeko lan plan bat zehaztea eta abian jartzea.	I.A.125. Lan plana zehazteko xedean egindako ekintzak I.A.126. Abian jarritako lan plana
I.HO.15.3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen kalteak banan-banan erreparatzeko eskubidearen aldeko foru ekimenean aurrerapausoak egitea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
I.15.3.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta emateko foru baliabideak 2018-2021eko Gizarte Zerbitzuen Mapari egokitzea.	I.A.127. Indarkeriari arreta emateko foru baliabideak Gizarte Zerbitzuen Mapari egokitze xedean txertatutako hobekuntza motak
I.15.3.2. Laguntza eta aholkuak emanda, eta talde feministekin, emakumeen elkarteekin, Ahalduntzeko Eskolekin eta Emakumeen Etxeekin koordinatuta, emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arretaren dimentsio komunitarioa indartzea.	I.A.128. Indarkeria matxistarekiko arretaren dimentsio komunitarioa indartzeko xedean txertatutako neurri kopurua eta motak

I.HE.16. GIPUZKOAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN ARLOAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAKUNDEETAN ETA BEREN ARTEAN KOORDINAZIOA HOBETZEA.	
I.HO.16.1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan foru eta toki politikak lerrokatzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
I.16.1.1. GFAn indarkeria matxistaren arloan ari diren departamentuen arteko koordinazio guneak indartzea.	I.A.129. Abian jarritako indartze neurri motak
I.16.1.2. Lurralde mailako koordinazio gune bat sortzea GFaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxista jasaten duten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen Arteko II. Akordioan parte hartu zuten udalez gaindiko arreta zerbitzuen artean.	I.A.130. Sortutako lurralde mailako koordinazio gunea
I.16.1.3. GFAk eta toki erakundeek emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean jarduteko moduak koordinatzeko partekatzen dituzten guneak sendotzea.	I.A.131. GFaren eta toki entitateen artean egindako bilera kopurua indarkeriaren aurreko jardueraren koordinazioa hobetzeko
I.HO.16.2. Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeria matxistari arreta ematean esku hartzen duten erakundeetan eta erakunde horien artean koordinazio eraginkorra ahalbidetuko duten tresnak sortzea.	
EKINTZAK	ADIERAZLEAK
I.16.2.1. GFaren eta toki erakundeen artean, emakumeen aurkako indarkeria matxistarekiko arretan koordinazioa hobetzeko tresnak lantzea.	I.A.132. Landutako tresna kopurua eta motak
I.16.2.2. Sexu jazarpen eta sexuagatiko jazarpen egoeren aurrean jarduteko eta haiei aurrea hartzeko foru protokoloa lantzea.	I.A.133. Landutako foru protokoloa
I.16.2.3. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean jarduteko eta indarkeria mota horri aurrea hartzeko tokiko Protokoloak sustatzea.	I.A.134. Abian jarritako sustapen neurrien kopurua eta motak

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III FORU PLANA GIPUZKOAN 2020-2023

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro